




Elkarrizketa:
GOTZON MARTIN >

“Ziklo kroosean Holandan jokaturako mundialean izandako emaitzarekin oso pozik nago, hoguei eta hamaikagarren postua lortu nuen”

12.or

Sozioekonomia

Kider enpresa likidatzearen ondorioz 200 langile kalera 6. or.

Jendartea

Joxe Blanco: “Kobaz inguratutako toki pribilegiatua da Aiaraldea” 7. or.

Arespalditza

Batzar administratiboan 104.000€ falta direla salatu dute 3. or.



Iritziak:

NORBERTO ALDAITURRIAGA 2. or.
KOLDO URKIXO 6. or.
JONATAN MORENO 7. or.
PATXI ITURREGI 10. or.
KOLDO ULIBARRI 12. or.
ITXASO ESCONDRILLAS 11.or
MIREN AYESA 16. or

aiaraldea



Aiaraldeko
hamabostekaria
2014 /// Otsailak 27 ///
10. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Argazkia: Javier Ruiz Lili



Badoa negua, badatoz Inauteriak

EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA: Martxoaren 8aren bueltan emakumeen eskubideak aldarrikatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte eskualdean. 8-9 or.



AURREZPENA
BERRITZAILEA
MAGUTASUNA
KALITATEA
FUNTZIONALITATE
AURRERATUAK

INTERNETERAKO SARRERA
ADSL
SHDSL simetrikoa
Satelite bidezko sarbidea
Wifi - Wimax sarbideak
MPLS sareak

Virgen del Carmen 37, bajo
01400, Laudio. Araba

Tfnoa: +34 946 54 785

www.algicom.net

KOMUNIKAZIO BATERARUAK
Siemens zentralitak
VoIP - asterisk
Zentralita birtualak



ALGICOM



_iritzia



Norberto
Aldaiturriaga
POLITIHKARIA

_Leihotik

Krisia dela-eta

Krisi hitzak hainbat esanahi ditu, baina guztiek badute zerbait komunean: aldaketa bortitzak eta horri aurre egiteko zailtasunak: eremu pertsonalean, familiakoan... Oraingoan, egun bizi dugun krisi ekonomikoaz arituko naiz. Atzeraldi Handia deitu izan diote 2007an hasitako honi. Kaleko hizkeran, esango genuke gu erailtzen ari den krisia dela, gure etxeetako esperantza husten ari den krisia dela. Hala ere, badago kezagarria den zerbait: egungo egoera suertatu zuen finantza-krisia atzean geratu da. Orduetik, sei urte baino gehiago pasa diren arren, ekonomiak ez du funtzionatzen, edo ez behintzat enplegu betearekin. Krisiaren aurretik, familiak zorpetuta zeuden, etxebizitzaren burbuila erraldoia zen, eta Euskadiko langabezia maila %8,32 zen. Orain, berriz, burbuila horren indigestioa baretuta, langabezia tasa %15,7 da. Batzuentzat, ez da behin-behineko krisia. Alderantziz: mundu-mailako aldaketa geopolitiko, ekonomiko eta sozial handi baten aurrarian gaudela diote. Aditu gisa aurkeztuak direnak teoria klasikoetatik eztabaidatzen ari dira: zer ote den sustatu beharrekoa: austeritate handiagoa ala gastu publiko handiagoa. Baina hori alde batera utzita, gauza jakina da teoria darwinistak aplikatu beharko ditugula: biziraun nahi baldin badugu, gure ingurura egokitu beharko gara, beharrianak bertute bilakatuz. Eta ez dezagun ahaztu, hortan euskaldunok badugu-eta nola-baiteko esperientzia historikoa: anekdota gisa, primerako jakia eskaini diogu munduko sukaldaritzakulturari: makailaua pil-pilean prestatzea.



Bienvenido
Aurrejubilatua

Ni ez naiz inoiz moztorrotu. Niretzako egun normal bat da. Beno, ez, ilobak ikustera joaten naiz eta; baina ez naiz bilobei argazkiak ateratzen dizkien horietakoa! Tolosan jaio izan banintz ezberdina izango litzateke, baina hemengoa naizenez... Gaztetan denbora ezagatik ez nintzen moztorrotzen



Olatz
Irakaslea

Oraindik ez, azken momenturako uzten dugu dena, urtero bezala. Ikusiko dugu ea zer ateratzen den! Normalean guk egiten dugu, telebistan edo pelikuletan ikusten dugunaren arabera. Azken momenturako utziz gero, etxean dugunarekin konpontzen gara! Denboraren arabera hobeto edo txarrago joaten da, baina ez dugu sekula erosten.

?

_GALDERA

Inauterietan moztorrotzen zara? Gustuko dituzu? Zergatik?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita



Irantzu
Zerbitzaria

Asko gustatzen zaizkit, jantzi ezberdinak ipintzen ditugulako eta oso ondo pasatzen dugulako. Gainera, parranda botatzeko egun ona da. Ni normalean Amurrioren ateratzen naiz, baina tabernan nagoenez lan egitea tokatu zait. Tabernarietzako ere egun berezia da; gabon zaharretako gaua bezala.



Marisa
Etxeko langilea

Bai, beti izan naiz parrandazalea. Dena hain beltz dagoenez... asko gustatzen zait. Urtero moztorrotu naiz, eta aurten ume txikiarekin... arrazoi gehiagorekin! Imajinatzen dut denborarekin gogoak apalduko direla, baina alaitasuna eta indarra dudaren artean disfrutatzen jarraituko dut.



Edurne
Langilea

Asko gustatzen zait inauteriak ospatzea, jaietan ateratzeko modu ezberdin bat dela iruditzen zait. Etxean egindako moztorroak nahiago ditut, merkeagoak ateratzen dira azkenean. Hori bai, apaingarri asko erosten hasten bazara dendatik aukeratzen duzun moztorroa bezain garesti ateratzen zaizu.

TWITTERen

#albisteizanda

@BTTRespaldiza Ostiral honetan ez ezazue galdu Aiarako Bira-ko XXV. aurkezpena, Arespalditzan 19:30tan!

@aiaraldea Belandiako erroren guda zibilaren inguruko filma grabatzen egon dira



@aiaraldea Txirrindulan zebilen emakume bat Lezamako erreka erori omen da eta helikopteroa erreskatatzera joan da

@LaudiokoJaiakK Gau eta egun lanean karroza prest egon dadin. #inauteriak

@aiaraldea 1964ko Aretako Asto Lasterketa ezagutu nahi? Hemen orduko NO-DOan jasoa <http://www.rtve.es/filmoteca/no-do/not-1128/1468763/> **@radioayala** bidez



TIRADA: 10.000 Ale. Lege gordailua: BI-1230-2013
ERREDAKZIO LANTALDEA: Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila

E-POSTA HELBIDEAK: egunkaria@aiaraldea.com / iragarkilaburrak@aiaraldea.com
publizitatea@aiaraldea.com / agenda@aiaraldea.com / agurrak@aiaraldea.com

OHARRA: Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Argitaratzailea: Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Nerbio Kalea 1, 3. esk. Audio. Araba. 01400 Tel: 94 656 85 54
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470. Tel: 945 06 66 84
Sakeleko Telefonoa (WhatsApp): 688 848 152

_gutunak

Foru Aldundiko errepide arduradunari

Joseba Ibarrola Leibar

Aurreko egunean honakoa bota zenuela esan zidaten: "Saratxo-ko errepidea nik esaten dudana tokian joango da!". Imajinatzen dut, gainera, ezaugarritzen zaituen harropuzkeriarekin esango zenuela. Zure "karrera amaierako proiektuaren" kaltetu naizen heinean, ezjakintasun honek zein luze jo duen soilik sala nezake. Eta, sail horren funtzionamendua oso txarra iruditzen zaidala. Izan ere, prentsan, etengabe irakurtzen dugu A-625 errepidea Araba eta Euskadiko puntu beltzenetarikoa dela. "Bere" proiektura itzuliz, oraindik ez da gauzatu. Arabako errepideen arduraduna zaren den heinean, herritar guztiei azalpena emateko eskatu nahi diot; gertatzen diren istripu gehienak berorrek errepide azkartzat eta segurutzat jotzen duen horretan pasatzen baitira. Uste dut zuk ere hori noizbait adierazi izan duzula. Azkenik, probintzia honetako arduradun politiko guztiek arduragabekieriaz jokatu dutela salatu nahiko nuke. Mesedez, ez dugu errepideen arduradun hau bezalakorik behar, hobe bat bilatu eta dirua aurrezteaz gain herria suntsituko duen proiektu hau geldituko dugu.

Ceutan gertatutakoaren salaketa

Bego Cosgaya (Laudion Bizi Gara ekimena)

Otsailaren Gan Ceutako Tarajal hondartzan gertatutako 15 heriotzek erakusten dute Europara sartzeko ahalegina egiten duten guztiek jasaten duten krudeltasuna. Eta, dena, lehen munduko pasaporte ofizialik ez dutelako. Hau protagonistak itsasoan lurperatzen dituen beste odisea bat baino ez da. Azken hamar urteetan mediterranean itsasoan 20.000 lagunek galdu baitute bizia. Edo, azken kasu honetan bezala, hondartzetan. Izan ere, migratzaileak politika basati eta gizagabeen biktimak dira, neurri krudelek mugatu egiten dituzte; mugak salbu mantentzearen aitzakiapean. Era honetako gertaerak bistan uzten dute zein gutxi balio duen bizitzak Hegoa eta Iparra bereizten duten horientzat. Egoera ekonomikoagatik miseria latzean bizi direnak bizirauteko behartuta daude haien herritik alde egitera. Beraz, Europar nazioetako interes ekonomikoen menpe geratzen dira; duten apurra lapurtzen diete, eta ordaintzea ezinezkoa zaien zorren biktimak bilakatzen dituzte. Ezin dugu onartu gizakionganako horrelako krudelkeria gehiagorik. Ezin dugu onartu zeharkatu ezin diren hesiak eraikitzerik. Emakume, gizon eta herri guztiak errespetatuko dituen mugarik gabeko mundu baten alde, migrazio politika honi ez!



_herriz herri

Arespalditza

Batzar Administratiboan 104.000€ desagertu direla-eta ikerketa abiatu dute



Arespalditzako batzar administratiboko diru kontuetan irregulartasunak agertu dira Argazkia: aiaraaldea.com

ERREDAKZIOA

Arespalditzan sartu berri den Batzar Administratiboaren kalkuluen arabera 104.000 euro inguru falta dira haien kontuetan. Izan ere, 2013 amaieran egindako Batzar Administratiboen hauteskunderen ondorioz ordezkari batzuk aldatu dira.

Urtarrilean piztu da polemika. Pasa den ostiralean Arespalditzako kontzejua egin zen. Batzarkide batek azaldu zuen paperetan jasotako mugimenduen eta kontu ko-

rrontearen errealitatearen artean 104.000 euro inguruko desfasea dagoela. Susmoek Santos Ibarretxe aurreko Batzar Administratiboko lehendakaria jarri dute jomugan.

Horretaz gain arau-hauste gehiago azalaratu dituzte: aurreko Batzar Administratiboko lehendakariak 4.992 euro kobratu zituen 2013an modu irregularrean. Diru kopuru hori dieta gisa bereganatu zuen Batzar Administratiboaren

ordezkari lanak egiteagatik, baina aurretik Foru Aldundiak diru finko bat kobratzea soldata moduan baliogabetu zuen. Aldundiak adierazi zuen Batzar Administratibo baten alkateak lana doan eta borondatez egiten duela. Zer edo zer kobratzekotan egindako gastuetan oinarritu behar da. Diru faltak kolokan jarri du Gizarte Etxearen eraikuntza. Aurten obrak hasiko ez balira, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak gal daitezke.

Okondo

Kartzelan sartu dute Okondoko erasoen ustezko egilea

Espetxeratu egin dute Okondon baserri bat erretzeagatik atxilotu zuten pertsona. Ertzaintzako prentsa arduradunak Aiaraldea Egunkariari adierazi dionez, gabon zahargaeantxalek bat erretzealeporatzen diote. Baita azken urteetan Okondon izandako beste hainbat eraso ere. Horien artean dau de iazko uztailean Ugalde eta Olabarrieta auzoetako errepikagailuetan eragindako kalteak edo hipika eskolari eragindakoak.

Ertzaintza aspalditik egon da ikertzen herrian izandako erasoak. Atxilotuari 90.hamarkadako erasoak ere egozten dizkiote.

Ertzaintzaren arabera, abenduaren amaieran egindako erasoaren ondorioz lortu dute ustezko ekin-tzailea atxilotzea. Egun hartan, San Roman auzoko egurrezko borda bat eta beste eraikin bat erretzen saiatu ziren.

Arabako Ertzaintzaren Ikertzai-le Kriminalen Espezialisten taldeak

36 urteko okondoar bat identifikatu du erasoen egile delakoan.

Hala, otsailaren 11an atxilotu egin zuten. Hiru egun beranduago, otsailaren 14an, Amurrioko epailearen aurretik igaro ostean espetxeratu egin zuten.

Ustezko erasotzailearen etxean ekin-tzailea izan daitekeela frogatzen duten objektuak aurkitu dituzte. Besteak beste, suaren bidez erretzeko artefaktuak sortzeko materiala.

Orozko

Zubiaur Eraikuntzen zuloa estaltzeko alternatibak



Orozkoko gaztelekua Argazkia: aiaraaldea.com

ERREDAKZIOA | | Lukas Pasandin

ADIEk Zubiaur Eraikuntzak-en irregulartasunak zuzentzeko proiektua aurkeztu du. Zehazki, gaztetxokoari, haur eskolari eta udal brigadaren eraikinari eragiten dio. Haur eskola eta gaztetxokoa Zubiaur Eraikuntzak-enak dira baina hauetan egiten dena udalaren eskumena da, ez dago erabilerarako kontraturik. Udal brigadaren eraikinean, ogasunari iruzur egin zitzaion: "Ogasunak 100.000 euro itzuli zizkion BEZ bezala Orozkori, hori da ogasunak berreskuratuko lukeen kopurua salduko baltiz. Arazoa, ordea, ez dagoela salgai da". Eraikina Zubiaur Eraikuntzak-enak da, baina lurzorua eta erabilera udalarena. "Kasu honetan ere ez da agerierabileraren inguruko kontraturik", erantsi dute Adiekoek. Horregatik, Zubiaur Eraikuntzak-eko lurzoru eta eraikin guztien tasazioa eskatu dute, proiektu bat burutzeko. Egitasmoa EAJ eta Bilduri aurkeztu diote dagoeneko.

Hiru proiektu

Haur eskolaren kasuan, udalak tasazio prezioan erostea proposatu dute. Gaztetxokoaren egoera erregularizatzeko, ordea, Zubiaur Eraikuntzak-ek partikular bati saltzearen alde agertu da Adie, lortutako diruarekin udalarekin duen zorraren zati bat kitatzeko.

Ogasunari ordaindu gabeko BEZa itzultzeko, eraikinaren erabileraren erregularizatzeko eta herritarreime sedee giteko; berriz, udalak udal brigadaren eraikina alokatzea nahi dute. Asmoa daber-tan jartzea gazte txokoa eta kultur gune berri bat. Erabilera, parte hartze prozesu bidez erabakiko dute herritarrek. Udal brigadari dagokionez, Bengoetxeko pabilioi batera mu-

gituko lukete. Eta Zubiaur Eraikuntzak-en jarduera garatzeko leku gisa udaletxea erabiliko litzateke.

Irregulartasunak

Bestalde, pasa den hilabetean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Orozkoko Udalar buruzko fiskalizazio txostena argitaratu zuen. Txostenak adierazten duenez, EAJ Zubiaur Eraikuntzak Sozietate publikoaren buru zenean irregulartasunak egon ziren 2007 eta 2011. urteen artean. 2007an lehendakariari -hau da, alkate ohiari- dieta kontzeptuan hilerio 1.030 euroren ordainketa egitea erabaki zuen, 14.424 euro urtero, hain zuzen ere.

Datu horren aurrean eta epaitegiak esandakoaren harira, Adiek azpimarratu du ordainketa hauek dietak baziren ondo justifikatu beharko direla: "Orozkoko herriak ez duela gastu hauetaz ezer jakin sozietateak ez zituelako bere aktak publikoak egiten". Hala ere, soldata itxura ikusten diote eta soldata bi erakunde publikoetatik aldi berean ezin denez kobratu, "diru publikoarekin jolastea oso grabea dela" nabarmendu dute. Zentzu horretan, dietak berriro aztertuko dituzte eta gastuak justifikatu gabe egongo balira dirua itzultzeko eskatuko dute. Hegoaldeko etxebizitzaren eraikuntza erabakitzeke lehia-keta ere jarri dute jomugan: "Izan ere, 80 etxebizitza egiteko konkurtsoa atera zen baina 54 bakarrik egin ziren eta, gainera, konkurtsoaren barruan gutunak ez ziren epe egokietan zabaldu.

+info: Bideoa:

Proiektua azaltzeko Adiek egindako animazioa.





_herriz herri

Laudio

Laudio 2025: bederatzi proiektu garapen estrategikorako



Parkea berreskuratzea eta zentro soziokulturala eraikitzea proposatu dute, besteak beste Argazkia: aiaraidea.com

ERREDAKZIOA | Aitor Martinez Ibarrola

Urte bat pasa da Laudio 2025 Hiri Plangintzarako oinarrien erre-dakzio lanak hasi zirenetik. Proze-sua parte-hartzailea izan da eta da-goeneko azkeneko txanpan dago.

Ibilbide osoan zehar Foro Es-trategikoak berebiziko garrantzia izan du. Izan ere, herriko sektore desberdinen ordezkariak batu dira bertan. Laudio 2025ean nolakoa izan beharko litzatekeen marraztu dute, hartarako bederatzi proiektu estrategiko eta horiek definitzeko printzipioak proposatuz.

4 irizpide eta 9 proiektu

Azkeneko horiek lau irizpideren arabera antolatzen dira. Lehen, udal gestio berritzailea, efizien-tea, parte-hartzailea, ulergarria eta gardena praktikatzeko da. Biga-rrenak, ekonomia berritzailea, ekin-tzailea, dibertsifikatua eta teknolo-gikoki garatua sustatzea du helburu. Hirugarrenarekin baliabide natu-ralak babestu nahi dira, lurral-dearekiko errespetuzko ordenazio orekatuaren bidez. Azkenak kalita-tezko hezkuntza sistema berritzaile-a izango du xede, herritarrak ba-loreetan heziak izan daitezten.

Proiektuei dagokionez, aipatu be-zala, bederatzi dira. Lehenak go-bernatzeko eredu berri baten al-deko apustua egiten du. Horren bi-dez, proiektu estrategikoak aurre-ra eramateko pakto politikoa alda-rrikatzen da, hala nola helburu eta programetan oinarritutako gestio eredu berri baten diseinua. Hori dena gardentasuna eta parte har-tzea sustatuz egin nahi dute.

Bigarren proiektuarekin promo-

zio ekonomikoaren alorra poten-tziatu nahi da. Hartarako Tokiko Ga-rapen Agentzia indartzeko beharra ikusi da, enpresa berriak sortzeko edota egungo ekintzen lehiakortasuna hobetzeko asmoarekin.

Hirugarrenak formazio berri-tzailea sustatzea du helburu. Ho-rren bidez Laudio formazio mailan erreferentziazko gunea bilaka-tu behar dela uste dute. Gainera, esparru ekonomiko eta profesio-nal berritzaile eta dinamikoarekin gertutasuna lantzea bilatuko da.

Laugarrenak Komertzioaren Plan Estrategiko baten beharra az-pimarratzen du. Planak hala dina-mizazio estrategia eta ekintza ba-teratuak nola gune komertziala-ren hobekuntza artikulatu beharko ditu. Izan ere, komertzioa sektore estrategikoa dela ondorioztatzen da, familia asko bertatik bizi baitira eta bizi kalitatean eta hiri dina-mikan eragina baitu. Hala, estra-tegia publiko-pribatu baten ezar-pena proposatu dute.

Bosgarren proiektuarekin hiri berritatzearen aldeko apustua egin nahi dute. Helburu nagusia itxura berria bilatzea da. Horretarako pertsonen zerbitzura egon-go den hirigintza soziala hala nola helburu estrategikoak lortzen la-gunduko duen hirigintza taktikoa baliatu nahi dira. Herri erdigunearen berritatzeko osoa, etxebizitzetarako aukera berriak bilatzea edota efizientzia energetikoaren susta-pena aipatzen dira, besteak beste.

Seigarren proiektuan ingurune natural eta ibaiden plan integra-la egitea proposatzen da. Helbu-

ru nagusia Nerbioi ibaiaren ertzean parke lineala egitea izango da, kali-tate handiagoko erabilera berritzaile-en erakarpenean handiko erreferen-tea bilakatzeko.

Zazpigarrenarekin Laudio di-tuen balore altuko espazio natura-lak berreskuratzearen aldeko indarra egiten da. Proiektu honen baitan Ermuko Andra Mariren Baberako Plan Berezia, Lamuza Par-kea, Arraño mendia eta Ugarte berreskuratzea jasotzen dira. Gai-nera korridore ekologikoen gara-pena planteatzen da.

Zortzigarren proiektuarekin identitate kulturala potentziatu nahi da. Horretarako, etorkizune-ko estrategiak jasoko dituen Kultu-ra Planaren diseinua ezinbesteko-tzat hartzen dute. Erreferentziazko zentro sozio-kulturala eraikitzeak berebiziko pisua hartzen du. Horre-taz gain, ariketa fisikoa, kirola eta aisialdi osasuntsua sustatzeko pla-naren garapena proposatzen da.

Azkenekoak, bederatzigarrenak, zerbitzu sozialen programak hobe-tzea eta elkartasuna nahiz lagun-tzarako sare sozialak sustatzea du helburu. Izan ere, 2020an Laudio-k biztanleria zaharragoa izango du eta, ondorioz, behar berriak, osasu-nerako ekipamendu sozial berriak beharrezko izanik.


Foro Estrategikoak garatutako dokumentuari ekarpenak egiteko nahiz emaitzak ezagutzeko, Auzo Asanbladak antolatu dira.

Gaur bukatuko da otsaileko txanpa.

Martxoan, aldiz, jarraituko dute: 3an, 4ean, 5ean eta 6an.

Artziniega

Mendieta kultur gune izateko proposamena



Tomas Deunaren elizan egin nahi dute proiektua Argazkia: Conchi Ochoa

ERREDAKZIOA | Unai Gotxi

Tomas Deunaren eliza musika topagune bilakatzeko proiektua aurkeztuko dute bihar 13:00etan Artziniegako udaletxean. Kultura sustatzeko eraikina berritatzeko nahia Conchi Otxoarena izan da. Azaldu duenez, urteak igaro dira ideia jaio zenetik. Proiektuak ga-ratzeko gazte talde baten, Araba-ko apezpikutzaren eta Artziniega-ko udalaren laguntza eta oniritzia izan du.

Mendieta Arteko Santutegitik gora dagoen auzo bat da. Elizaz

aparte, inguruan dauden bideak berreskuratu nahi dituzte, kultu-rak eta naturak bat egiteko. "Bir-moldaketa gauzatzeke tailer es-kolak erabiliko dira, zeinetan gaz-teek zaharberritzen ikasiko duten obrak gauzatzen diren bitartean", zehaztu du.

Proiektua aurrera eramateko-tan musikarako gune bilakatu nahi dute; kontzertuak, hitzaldiak... an-tolatzeke. Nahiz eta proiektu bihar aurkeztu, garatzeko datarik ez dute iragarri.

Urduña

Anbulantziak Amurriotik bideratzen jarraituko dute

ERREDAKZIOA | Irati Marañon

lazko uztailaren 15ean ambulanz-ziarik gabe geratu zen Urduña.

Zerbitzu hori, Lehen, Gurutze Gorriko gidari batek eta erizain-la-guntzaile batek ematen zuten, bai-na Osasun Sailak erabaki zuen an-bulanzia kentzea eta Amurrioko ambulanzien bidez artatzea Ur-duñako herritarrak.

Erabaki horrek, bada, Urduñako eta Amurrioko alkateen kritika era-gin zuen, eta zerbitzuak okerrera egingo zuela adierazi zuten.

Urte bat igarota, emaitzek, or-dea, kezka baretu dute; "Eusko Jaurlaritzak hartu zuen ardura eta zerbitzua indartuz ez da eragozpe-nik egon", Karlos Arranz alkatearen esanetan. Lanpostuak Eusko

Jaurlaritzakoak izatera pasatu dira.

Osasun Sailak orain arte egin-dako lanaren ebaluazioa egin du, eta lortutako datuek zera erakutsi dute: ambulanziaz Amurriotik Ur-duñara joan behar badu ere, eran-tzun denbora minutu batean mu-rriztu dela.

Gainera, Amurrioko ambulanz-ziak erizaina du, eta, hortaz, Osa-sun Sailaren aburuz, arreta hobe-a ematen zaie erabiltzaileei.

*info: audioa:

Karlos Arranz Urduñako alka-teari egindako elkarrizketa





_herriz herri

Aiaraldea

Erabakitze-ko eskubidearen alde 3.500 aiaraldear Ataunera



Laudion egindako herri argazkia Argazkia: Laudioko Gure Esku Dago

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Gure Esku Dago dinamikarako talde berria sortu da Aiaraldean, Euskal Herrian erabakitze-ko eskubidearen aldeko mugimendua eskualdeko jendartearen zabalteko helburuarekin.

Horretarako hainbat ekimen prestatzen ari dira. Horien artean, martxoaren 16an egingo den aurkezpen ekitaldia. Ekitaldia, 19:00etan izango da Laudioko udal heziketa eskolan. Helburua da ekainaren 8an egingo den katerako eskualdeko 3.200 pertsona biltzea.

Orain arte, herrietan ezberdinetan aurkezpen bilerak egin dituzte, eta lan-taldeak antolatu. Orozkon, esaterako, iragan astean izan zen.

Laudion, aldiz, astelehenero elkartzen dira, 19:00etan, kultur etxean.

Arrankudiagak, Zollok eta Arrakaldok kanpaina bateratua egingo dute. Lan taldea sortzeko gaur egingo dute bilerak Arrankudiagako gizarte etxean 19:00etan.

Naziotasuna ardatz

Aurten Eskozian eta Katalunian herrigaldeketa egingo dituztenez, Gure Esku Dago plataformak Euskal Herriarentzat 2014 urtea garrantzitsua ere izatea nahi du. Horrela, 2013ko ekainaren 8an Durangon aurkeztu zen ekimenak herri aktibazioa eta atxikimenduen bidez erabakitze-ko eskubidea bultzatzea du helburu.

Dinamika herritarra, anitza eta parte-hartzaileaz aparte, tokian tokiko ekimenei aterkia eskainiko die, beti ere erabakitze-ko es-

kubidea xedea⁽¹⁾ duelarik. Horrela, "jendartearen dagoen beharri abagunea⁽²⁾ eman, eta honen zilegitasuna bultzatu nahi du dinamika, erabakitze-ko eskubidea gauzatuz" dio mugimenduak.

"Atxikimendu pertsonalak metatu⁽³⁾ eta antolatuz, gehiengo sozial, sindikal, politiko eta instituzionalak landuko dituzte, erabakitze-ko eskubidearen norabidean" gaineratu dute.

Ataunera 3.200 lagun

Erabakitze-ko eskubidea aldarrikatzeko, Gure Esku Dago ekimenak milaka herritar Iruñea eta Durango arteko 123 kilometroetan, eskutik eskura elkarturik. Herritarrek izango dute protagonismo osoa; herri gisa etorkizuna erabakitze-ko duten eskubidea aldarrikatzeko. Gauzak horrela, Aiaraldeko jendeak 3 kilometro bete beharko ditu Ataunen, eta guztira 3.200 pertsona behar dituzte. Gainera, mugimenduak herriz herri egiten ari den lana erakutsi eta lan horri bultzada emateko martxoak 29ko ekitaldi nazionalerako deialdia egin du. Aurkezpena Bilboko La Casilla izango da 17:30ean.

Giza katean parte hartze-ko metroa erosteko aukera zabalik dago Internet bidez edota herrietan salgai dauden txartelen bidez.

Hiztegia: xedea⁽¹⁾, helburua / abagunea⁽²⁾, aukera / metatu⁽³⁾, pilatu.

Amurrio

San Anton plaza estali egingo dute



San Anton plaza Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA

San Anton plazan estalkia jarriko dute. Horretarako, ordea, lehen-dabizi ideien lehiaketa jarriko dute abian, eta ondoren, prozesu parte-hartzaile bat.

Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi du 2014-2015 artean estalki duela gunea. Parte-hartze prozesuari dagokionez, ideien lehiaketatik bost proposamen aukeratu-ko dituzte aurreproiektu gisa. Oinarririk datozen egunetan finkatu eta aurkeztuko dituzte. Eta, martxoaren amaiera arte egongo da egitasmoak aurkezteko aukera. "Era honetan amurriotarrek erabakiko

dute zein den soluziorik eraginkorrena", zehaztu dute. Egundak, San Anton plazan kirol eta kultur ekitaldiak, asteroko merkatua... egingo dira. Obra egiteko lortutako finantziak 270.000 eurokoa da. "Obra gain, jendeak alternatiba ezberdinen inguruko iritzia ematea nahi dugu, nola ikusten duten espazio hau adierazi eta etorkizunean zer izan daitekeen erabakitze-ko", azaldu du Josune Irabien alkateak. Amurrioko Bilduk salatu du estaltzea EAJk eta PPK amurriotarrei gabe eta alternatibarik aztertu gabe erabaki dutela.

Ariketa egiteko makina gehiago Intxaurdin

ERREDAKZIOA | Irati Maraño

Herritarrei aire zabalean ariketa egiteko aukera eman nahi die Udalak, eta ildo horretan, gimnasia egiteko hainbat aparatua jarriko ditu. Helburua da paseoan ari direnek bestelako ariketak ere egin ahal izatea. Ekimen hori, bada, herrian zehar ibilbide bio-osungarriak bultzatzeko proiektu orokor-rrago baten barruan sartuta dago.

Refor kaleko aparatuek orain hilabete batzuk instalatu ziren. Zehazki, zazpi tresna dira, eta 14.562,27 euroko kostua izan dute.

Orain, gimnasia egiteko beste gune bat jarriko dute Intxaurdiko kaleko parkean, Telefonikako eraikina zenaren atzean. Gune horretan

hiru aparatua jarriko dira, eta kostua 10.367,16 eurokoa izango da.

Proiektu hau aurrera eramateko, bada, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza eman dio Amurrioko Udalari. Hain zuzen, Osasun sailburuaren 2013ko maiatzaren 29ko Agindua- ren bidez iazko ekitaldian talde teknikoak mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitarioko programak garatzeko, jarduera fisikoa sustatzeko programak egiteko; arriskuak eta kalteak prebenitzeko eta gutxitzeko proiektuak egiteko laguntza ekonomikoetarako deialdia egin zen. Udalak agindu horretan ezarritako baldintzak betetzeagatik jaso du laguntza.

_Iruditan



Saharara bidaltzeko EAE mailan bildutako elikagai karabana Laudioetik atera zen pasa den larunbatean. Guztira, X kamioi abiatu ziren X kaletik. Besteak beste, kontserba latak, arroza, konpresak... pilatu dituzte. Aiaraldean 4.900 kilo janari jaso dir

Bideoa ikusgai webgunean



sozioekonomia



Koldo
Urkixo
LAB

Argia

Desobedientzia
ariketak

Aiaraldeko biztanleok behin eta berriz beste gizarte eredu bat eskatu dugu, gizar-te eredu justua, eskusiorik gabekoa, guztiok eskubide guztien jabe izateko.

Izandako greba orokorrekin jarraipen handia izan dute eskualdean, lan gatazken inguruko mobilizazioak jendetsuak izan dira,

Aiaraldeko jendarteak plantoa nahi duela argi esan du. Madriletik datozenak ikusita, mobilizazioek jarraipena izango dute. Beharrezkoak dira guztiz, mobilizazioa eta borroka bidea delako. Greba orokor batean parte hartzea, adibidez, desobedientzia ariketa da.

Maiz entzuten ditugu desobedientziaren inguruko aldarrikapenak. Hauek, noski, hala tokiko instituzioei nola beste mailako instituzioei zuzenduta daude. Argi dago estatu espainolaren kontrako desobedientzia, azken erabakiak eta ardurak hemengo instituzioenak direla, baina lana gurea izan behar da.

Mobilizazioez gain, beste motatako desobedientzia ariketak egiteko beharra dago. Instituzioak beste politikak egitera bultzatzeko, politika propioa eta justuak egiteko.

Horretarako foro eta tresnak sortzen ari dira. Hauek bultzatzea eta bertan parte hartzea ezinbestekoa da. Dinamika zabal anitz bidean dira; esku-bide sozialen karta, gure esku dago, gure hezkuntza plata-forma... instituzioek jendartearen nahi eta beharrei erantzun behar diete, bidea erakutsi diezaiegun.

Kider enpresa likidatuko dute eta 200 langile inguru kaleratuko dituzte



Asteartean ELA Amurrioren egindako manifestazioa Argazkia: Iñigo Galdeano

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Kider enpresak likidazioa iragarri du, eta ondorioz, bere langileak kaleratuko ditu. Dagoeneko iraungitze espedienteak aurkeztu diote Eusko Jaur-laritzari eta honek onartu behar du. Irekita mantentzeko zegoen azkenengo aukerak -hau da, inbertsio-fondoak- eze-

koa eman ostean hartu dute erabakia.

Kider enpresak 400 pertsona ingururi eman die lanazuzenean, Aiaraldean -Amurrio eta Murga- eta Ezkerraldean -Barakaldo- sortutako lanpostuak batuz gero. Likidazioak zorrei aurre egiteko balio-

ko du. Likidazioaren aurrean erantzunak ezberdinak izan dira langileen aldetik eta batasun sindikala erabat apurtu da lantegitan.

Alde batetik, ELA sindikatuak grebara deitu du. Astelehenean hasi zuten protesta eta %60ko jarraipena izan zuen lehenengo egunean.

Asteartean mobilizazioa antolatatu zuten eta Murgatik abiatutako manifestazioak Amurrioko Juan Urrutia plazan bukatu zuen ibilbidea.

Grebarekiko desadostasunak

Gainerako sindikatuak desadostasuna adierazi dute grebarekiko.

ESK eta LAB erakundeek otsailaren 21ean egin zuten elkarretaratzeari Amurrioren.

CCOO, UGT, ESK eta LAB sindikatuak uste dute egungo egoeran greba egiteak ez duela lagunduko.

Kiderrek irekita jarraitzeko dituen aukera apurrak galtzeko balioko duela uste dute. Berez, lantegietan martxoaren 28an bukatu behar dute bezeroentzat pendiente duten azkenengo eskaera.

Sindikatuaren aburuz Lecertua sendiaren eta Caixa bankuaren arduradak Kiderren itxiera. Langile ordezkarien iritziz ez dute apustu serio-rik egin zorrak kitatzeko.

Sindikatuak azpimarratu dute enpresaren zorrak ordaintzeko ez dutela ezekarpenik egin ezta finantzaziorik lortu. Hori dela eta, hartzekodunen konkurtsoan sartu zen enpresa. Administrazioak Kider saltzeko hainbat saiakera egin eta gero likidazio prozesura jotzea erabaki du.

Atzo egindako prentsaurrekoan CCOO, UGT, USO, LAB eta ESK sindikatuak salatu zuten Eusko Jaur-laritzaren utzikeria.

Tokiko alderdien babesa

Amurrioko Udalean ordekaritza duten talde guztiek babesa eman diete Kider taldeko langileei adierazpen instituzionalaren bitartez.

+info: Aben-
duan langileek
egindako mani-
festazioa.



Aplica-ko langileen 15 eguneko greba negozioazioaren alde

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru

Aretan kokatuta dagoen Aplica enpresako langileek 15 eguneko lanuztea abiatu zuten otsailaren 17an.

Grebaren helburua bere egoera salatzea da. Aplicak bere bezero garrantzitsuenak galdu du, Euskaltel, hain zuzen ere. Horren ondorioz, lan kargariak gabe geratu da.

Baina Aplicako zuzendaritzak adierazi du ez duela dirurik kalte-ordainei aurre egiteko eta langileak kaleratzeko. Horren ordez, lan erregulazio espedienteak ezarri die beharginei eta denborapasa-tzen utzi zuten gero hauek langabeziko prestazioak galtzeko beldur dira.

Aldiberean, Aplicaren lanarekin-
go dituen enpresak -Alteablek-
ez du azpiegiturarik ez beharginik Euskal Herrian eta Aplicako zenbait langile kontratatze-
ko asmoa adierazi du. Printzipioz call-
centroaren deia jasotzen lan egiten du-
tenei ez die eskaintzarik helarazi.

Hori dela eta, langileek greba erabili nahi dute Aplicak kalte-ordainak kitatu ditzan joan nahi du-
tenekin. Izan ere, borondatez joa-
nez gero kalte ordainak kobratzea-



Eusko Jaur-laritzaren aurrean egindako protesta Argazkia: aiaraldea.com

ri uko egingo diote. Hala ere, Alteablek 4 hilabeteko kontratua eskaintzen die, hasteko, eta langileek zenbait eskubide galduko lituzkete -antzinatasuna, adibidez-.

Protestak

Aplicako langileek lantegia eta bulegoak gelditu dituzte. Otsailaren 21ean Eusko Jaur-laritzaren aurrean egon ziren eta Audioko Herriko Plazan ere elkartu dira. Otsai-

laren 25ean Aretatik Audiora manifestazioa ere egin zuten.

Pasa den urtean kaleratzeak egon ziren Aplican, baina joandako langileak akordio batera heldu ziren enpresarekin.

+info: bideoa:
Aplica enpresa-
ko langileen gre-
ba eta elkarritze-
keta



Eusko Jaur-laritzak Kantabriako neurri berdinak eskaini zizkion Tubacexi

Arantza Tapiak, Garapen eta Lehiakortasun sailburuak adierazi duenez, Eusko Jaur-laritzak Tubacex enpresako zuzendaritzari diru-laguntzak eta baldintza malgueak eskaini zizkion enpresaren instalazio berria Euskal Autonomi Erkidegoan geratu zedin. Kantabriako Gobernuak eginko eskaintza ere berdintzera heldu zen Jaur-laritzari; lur sailak doan ematea eta proiektu berriaren gobernua diru ekarpena egitea. Hala ere, Tubacexeko agintariak ezezkia eman zioten proposamen horri. Sailburuak enpresaren zuzendarien jarrera deitoratu egin du eta hartutako erabakiarekin bat etorri ez arren Jaur-laritzak errespetatzen duela adierazi du.

Tubacexek Kantabriako instalazio berria iragarri zuenean, enpresako zuzendaritzak, langileen soldata altuek eragiten zuten lehiakortasun eza eta sindikatuaren pre-
sioak eragiten zituen galerak aipatu zituen leku aldatzearen arrazoi nagusi bezala. Tapiak sailburuak, ordea, lan kostuek edota energia-
ren prezioak enpresaren erabakiaren gainean eraginik izan ez dute-
la adierazi du.



_jendarte

Joxe Blanko *espeleologoa*

“Aiaraldea eremu pribilegiatuan dago, kobak eratzen diren paisaiaz inguratuta baitago”

JOXE BLANCO (Laudio, 1967) Takomano espeleologia taldeko kidea da. Eskualdean 200 kilometrako koba hodi luze eta sakonak daudela dio; “asko lurpeko geografiaren harribitxiak”. Martxoko hiru asteburutan, espeleologia ikastaroa egingo dute Aiaraldean.



Joxe Blanco, Takomano taldeko kidea Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA | Aimar Gutierrez

Noiz eta zertarako sortu zen Takomano espeleologia taldea?

Ofizialki, duela 3 urte sortu zen taldea. Takomanok Losa haranean du jatorria, eta inguruko karst eremu handienetan (Gorbeia- Gorobel) ordura arte aritu ziren talde nagusiek (Bizkaian GAES, Arabako GEA eta Gaztelako Edelweiss) utzitako zirrikitueta. Talde horietan eskualdeko jendeak apenas hartu du parte. Ohitura kanpotarrek gure kobak esploratzea izan da. Joera horrekin apurtzen du Takomanok.

Zenbat kidek osatzen dute taldea? Nola parte har liteke bertan?

Aiaraldeko, Tobalinako eta Ezkerraldeko kideak daude; guk, Gorobeiko karstak bezala jokutzen dugu, mugarik gabe. Ofizialki Gaztela-Leoiko federazioan bagaude ere, Euskal Espeleologoen Elkar-goaren (EEE) jardueretan parte hartzen dugu, bai espeleologuntza mailan zein elkarte honek antolatutako ekintzetan.

Egun 20 bat kide gara. Dena den, espeleo taldeen helburuak kuantitatiboak baino kualitatiboak izaten dira. Jendea trebatuta egon behar da, eta horretarako hastapen ikastaroak antolatzen ditugu.

Taldea zabalik dago espeleologiara hurbildu nahi duen orontzat, gure jardueren berri ematen duen blogaren zein helbide elektronikoa bitartez.

Ze ibilbide jorratu du taldeak gaur arte?

Nahiko ipurterreak garenez, ez gara inoiz gelditzen. Arabako, Bizkaiko eta Burgoseko ia 50 harpe berri esploratu dira, 10 km-tako hodi berrien topografia lanak osatu eta aztarna arkeologiko garrantzitsuak aurkitu; 3 erreskate simulakrotan eta hainbat ikastarotan parte hartu... Larrako kanpainan ere aritu gara. Bioespeleologia laguntza lanak egin dira (EHU-rekin batera besteak beste); kirol irteerak; ikastaroak; frackingaren aurkako ekintzak; koben garbitzea; dibulgazio lana...

Laburbilduz; zertan datza espeleologo izatea?

Espeleologian aritzen dena da espeleologoa. Espeleologia lurpeko eremuak ikertzen dituen diziplina anitzeko zientzia dugu: geologia, hidrologia, biologia, paleontologia... Espeleologia bertikala bihurtzen denean -leizeetan eta abarretan- segurtasun kirol teknika batzuk ezinbestekoak dira.

Kirol jarduna ikerketa horiek lortzeko bitarteko hutsa da. Dena den gu ez gara zientzialariak, kirolari zientzia zaleak akaso.

Azken hamarkadetan mendi eta natura jardueren zabalpenarekin, espeleologia ere kirola bihurtu da.

Zer nolako ezagutza behar da espeleologian aritzeko?

Printzipioz, edonork lagundu dezake talde baten jardunean, natura sakonki disfrutatzeko gogoak izatea nahikoa da. Leizeetan beharra hasten garenean, progresio

“Espeleologia lurpeko eremuak ikertzen dituen diziplina anitzeko zientzia da. Gu ez gara kirolariak, kirolari zientzia zaleak, akaso”

“Gorobel, Arkamo-Gibijo eta Gorbeia-ltxina eremuetan 200 km-tako koba hodiak ezagutzen dira. Asko lurpeko geografiaren harribitxiak dira”

bertikalerako teknikak ezagutzea eta menperatzea inposatu egiten da. Beste ezagupen batzuk eskarmentuarekin ikasten dira: behatzen jakitea, esploratzeko usaimen berezia... Zorionez Takomano kideren batek dohain horiek oso garatuta dauzka. Azkenik, kobak oso ekosistema hauskorra direla kontuan hartu behar da eta errespetuarekin jokatu beharra dago.

Zer iruditzen zaizu espeleologiatik erakargarriena?

Gune estuak, ilunpeak, lupeztzak zein bustita ibiltzeak ez dirudite oso erakargarriak; baina etxe ondoko mendiko lurpean paisaia txundigarriak ikusteak, horietako asko ikusten lehena izateak, aurkikuntza arkeologikoen... Benetan egoera kitzikagarriak eragiten dituzte. Espeleologiak badu zerbait atrapatu egiten zaituena, grina sortzen duena, obsesioraino batzuetan.

Zeintzuk dira kontuan hartu beharreko segurtasun neurriak?

Kobatara joateko orduan hiru arau errespetatu behar dira: eguraldiari adi egotea, bakarrik ez joatea eta nora goazen jakinaraztea. Espeleo bertikalean eta lurpeko erreketan ibiltzeko segurtasun neurriak asko dira eta zaila da esaldi bakar batean laburtzea, baina edozein jardun planteatzeko orduan lelo hau joko nuke ezinbestekotzat: helburuak planteatzeko apaltasuna eta zuhurtzia.

Aiaraldean zer nolako aukerak daude praktikatzeko?

Aiaraldea leku pribilegiatuan kokatuta dago, eremu karstikoz (kobak eratzen diren paisaiak) inguratuta baitago: Gorobel-Arkamo-Gibijo eta Gorbeia-ltxina eremuetan 200 km-tako koba hodiak ezagutzen dira, luzera zein sakonera handikoak; asko lurpeko geografiaren harribitxiak dira. Martxoan ikastaroa egingo dugu: geologia, hidrologia, bioespeleologia, orientazioa eta topografiaren inguruko oinarritzko ezagupen batzuk barneratzeaz batera, espeleologia bertikalean autonomo izatea dira helburu nagusiak. Hiru asteburutan 48 ordu praktikotikoz izango dira, inguruko pareta eta barrunbe ezberdinetan. Bioespeleologiari buruzko atala EHUKo biologo batek emango duela aurrreratuko dut.



Jonatan

Moreno

PARTE HARTZEAN ADITUA

_Hankamotz

Parte-hartzearen alde?

Askotan defendatu dugu herritarren parte hartzea eskubide sozial bat bezala; eta horrela izan behar da nahiz eta orain arte behar bezala bermatuta ez den egon.

Erakunde publikoek askotan honen kontra jo dute, arrazoi ezberdinak direla eta. Ene ustez egoera asko aldatu da, era ezberdinean politikan aritzeko borondatea agerikoa delarik. Hala ere, zoritxarrez ezjakintasuna eta mesfidantza dira nagusi.

Egoera honek beldurra eragiten du, beldur hau prozesuak usteltzea sortaraziz. Konfiantzarik gabe, hots, “beldurrez” prozesuak martxan jartzen direnean, parte-hartzaileengan mesfidantza eragiten dute, ondorioz prozesuak ustelduz eta prozesua porrotera eramanez. Bestalde, alderdi politikoak zein herritarren plataforma politikoak ere oposizioan daudenean, batzuetan gobernuaren kontra egiteko erabiltzen dituzte, prozesu beraren porrota bilatuz, era horretan herritarren botoa eskuratuko dutelakoan. Beraz, prozesu parte-hartzaile politizatu bilakatzen dira, eta ondorioz, herritarrek alde egiten dute, ekimenaren inguruan suertatutako “komeria politikoa” agerikoa delako.

Zoritxarrez, porrotak guztien kalterako dira; herritarrak, alderdi zein plataforma politikoak eta parte-hartzea bera kalteztzen dituelako. Honetan benetan sinisten dutenen jokaera (kritikoa zein erakitzailea) antzematen da, baita interes politiko zehatz baten atzetik doazena ere.

Emakumeak gertu, berdintasunaren helmuga urruti

Martxoaren 8aren harira, Emakumearen Nazioarteko Eguna, 40 ekitalditik gora antolatu dira eskualdean. Aurtengo aldarrikapenen artean abortatzeko eskubidea izango da nagusi.

ERREDAKZIOA  | Miren Ayesa Aranoa - Izar Mendiguren Cosgaya

Emakumeak prest egon arren berdintasuna urruti dago oraindik. Lan munduan, kirolean, politikan, jendartean... adibide mordoak daude. Egoera aldatzeko asmoz, eskualdean ere emakume talde ugari sortu izan dira, eskubideak errespetatzeko: Menagaraiko emakume taldea, Hiriska, Ametsuts, Adi, Lorraldi, Aurreraka, Matxintxu, Solastiar, Emaion, Sorgin moreak...

Esti Vicente Hernandezek horietako batean hartzen du parte, Urduñako Adi emakume taldean. Parekidetasuna benetakoa izateko borrokatzen du. Izan ere, ez du uste emakume eta gizonek eskubideberdinak dituztenik: "Lantokietako zuzendaritza postuen %80 gizonezkoena da. Emakumeek lan berdina egiteagatik gutxiago kobratzen dute. Horretaz gain, emakumeok etxean eta kanpoan egiten dugulan; eta ez zaigu aitortzen".

Besteak beste, emakumeak jendartean ikustaraztea eta ahal duntzea jotzen ditu erronka nagusi. Aurtun, baina, bereziki, abortu eskubidea aldarrikatuko du; hori iruditzen baitzaio garrantzitsuenari: "Atzerapauso ikaragarria da, %100koa. Emakumeoierabakitze-ko eskubide guztiak kendu dizkigute. Ezin dute gure etorkizunaz beste batzuk erabaki. Are gutxiago ea bortxatu nauten edo ez".

Abortuaren harira, datu esanguratsu bat ekarri du argitara: "1983an emakumeen heriotzakau-sa gehienak abortuengatik ziren. Lege honekin nik uste dut pertxara itzuliko garela, antzina alanbredun pertxarekin abortatzen zen. Baita koka-kola xiringan ota eta bagin-nan sartuta". Egoeraren aurrean, kalera atera behar dela garbi du: "Jendeak ez du ezer egiten, udalek

ere ez. Gauza hauek ezagutarazteko lan handia egin behar da. Aberatsek klinika pribatuetan abortatu ahal izango dute, eta gainontzeko emakumeak hil egingo dira". Esti Vicenteren iritziz, denborak aurrera egin ahala, legeek atzera egiten dute: "Lege honekin 70. hamarkadara itzuliko gara, zaintzaile errola jarri nahi digute, gure seme-alaba edo gurasoak zaintzeko. Litekeena da urte guzti hauetan lortu ditugun aurrerapausoak lehengora itzultzea, bikote edo senarrei lotutako emakume boteregabeak nahi gaituzte. Ez da lege kontua, ondorioena baizik".

Itziar Bigurik emakumeen eskubide sozial eta politikoak urratzen direla pentsatzen du. Jendarte justuago bat du aldarri: feminismoaren ikuspuntutik emakume eta gizonezkoak berdinak izango direna. Gizonezkoek dituzten eskubide guztiak emakumeok ere izan behar ditugu: lana, gorputzarekiko erabakitze-ko eskubidea, abortatzekoa...".

Egoera aldatzea nori dagokion galdetuta, gizonen paperak ere parekidetasunean zer esan eta zer egin handia duela erantzun du. Julene Onaandia Garciak mikromatxismoak azaleratuko ditu Laudion institutuan emango duen hitzaldian. Hau da, gizonezkoek emakumeen gainean duten boterea baieztatu edo defendatzeko hartzen dituzten jarrerak. "Adibidez, taberna batean mutilak neska gonbidatzen duenean edo ikasgeletan neskak hitz egitean mutilek kasu egiten ez dutenean", azaldu du. Gazteen artean autokritika egitea eta kontzientziaztea izango ditu helburu: "Emakumeok ezin dugu gizonek ez dutena nahi aldatu, bai, ordea, presionatu". Botere transforma-

1911an New Yorkeko Triangle fabrikan grebari lantegiari su eman ez erantzun zioten jabeek eta protestan zeuden 140 emakume hil egin ziren. Hala ere, martxoaren 8aren zergatia ez dago argi.

zioa eman behar dela dio; indarkeriak detektatu, izendatu eta salatu egin behar direla.

Pepa Ikaran Salegik Audioko Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria arloan egiten du lan. Berdintasunaren alde, prebentzio kanpaina oso garrantzitsuak direla dio. "Bikote gazteetan genero indarkeria lantzeko herriko ikastetxe guztietan saioak egiten ditugu". Baita sexualitatea lantzekoak ere. Hala ere, herrian herri egitasmo ezberdinak egiten direla dio: "Udaletako zerbitzu eta baliabide gehienak emakume biktimekin lotuta daude; tratatu txarrekin". Herri gehienetan bezala, Berdintasun arlotik ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Zergatik martxoaren 8an?

Nazioarteko Emakumearen eguna zergatik ospatzen da? Askotan pentsatu izan da Emakumeen Nazioarteko Eguna 1911. urteko martxoaren 25ean New York-eko Triangle fabrikako sutean hil ziren 140 emakume langileengatik egiten hasizela, baina ez dago argi noiz hasi zen ospatzen eta zergatik aukeratu zen martxoak 8 egiteko.

Abiapuntua XIX. mendeko amaierako nazioarteko emakume sozialisten mugimenduan dago. Haien helburu nagusia bozkatzeko eskubidea lortzeko borroka sustatzea zen, hezkuntza, jabeago edota aberastasunean oinarritutako inongo murrizketarekin. Izan ere, sufragistak giro burgesetik zetozen.

Kopenhagen egindako Emakume Sozialisten Nazioarteko II. Biltzarrean Clara Zetkin komunista alemaniarrek Emakume Langileen Eguna egitea proposatu zuen emakumeen bozkatzeko, kargu publikoetara iritsi ahal izateko eta la-

nerako eskubideak aldarrikatzeko helburuarekin. Horrela, 1911. urteko martxoaren 19an Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatu zen lehen aldiz. Aspetete beranduago, martxoaren 25ean, Triangle fabrikako emakume beharginek greba egin zuten pairatzeko zuten esplotazioa salatzeko. Enpresan itxiak zeudelarik jabeek su eman zioten eraikinarri emakume langile guztiak errez.

Renée Côte ikertzailearen ustez Errusian dago jatorria. Nahiz eta 1914. urtetik errusiar emakumeek data horretan ospatzen zuten, 1917. urtean gerran hil ziren 2 milioi errusiarren omenez, bertako emakumeek "ogia eta bakea" lelopean grebak egiten hasi ziren. Langile mugimenduko buruei eze-gokia iruditu omen zitzaizen, baina ezustean emakumeek hasitako borroka arrakastatsua izan zen eta iraultza giroa Errusia osoan zabaldu zen. Mobilizazio horiek Tsar-aren abdikazioa ekarri zuten eta emakumeek martxoaren 8an boto eskubidea lortu zuten munduko herrialde askotan egun hori ospatuz.

1975. urtean Nazio Batuek martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna ofizialki ezarri zuten nazioartean emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapen eguna eginez eta langile izaera kenduz.

Guztira, 40 ekitalditik gora izango dira datozen egunetan eskualdean zehar. Berdintasuna helmuga duten 40 urrats bat gehiago.



Emakumeen nazioarteko eguna dela-eta, iaz Laudion

+info: audioa

Mikromatxis-moen inguruan egindako elkarrizketa





egindako kontzentrazioa. Argazkia: aiaraldea.com

EGITARAUA

03.04. ASTEARTEA .17:30ean
Enaitz pirata ipuinen munduan
TOKIA: Urduñako kultur etxean

03.05. ASTEAZKENA .17:00
Zineforuma: "Una cancion para marion"
TOKIA: Laudioko ULHE

03.06. OSTEguna. 18:30ean
World kafe: Emakumezkoak eta gizonezkoak berdintasunerako bidean
TOKIA: Urduñako kultur etxean

03.07. OSTIRALA. 20:00etan
Urduñako kontzentrazioa
TOKIA: Urduñako udaletxean

03.07. OSTIRALA. 20:00etan
Abortu eskubidearen hitzaldia eta bertso afaria
TOKIA: Laudioko Gure Aukera elkartean

03.08. LARUNBATA. 12:00etan
Kontzentrazioa, bertsolariak eta betibizien banaketa
TOKIA: Amurrioko plazan

03.08. LARUNBATA. 13:00etan
Laudioko kontzentrazioa
TOKIA: Lamuza plazan

03.08. LARUNBATA. 13:30ean
Elkarretaratzea eta Okondoko emakumeen bideo aurkezpena
TOKIA: Okondoko Meson Tabernan

03.08. LARUNBATA. 17:00etan
Amurrioko VII. Herri milia
TOKIA: Frontoï kalean

03.08. LARUNBATA. 18:00etan
Antzerkia: "Las Cuñadas"
TOKIA: Artziniegako adinekoen egoitzan

03.08. LARUNBATA. 19:15etan
Orozkoko kontzentrazioa
TOKIA: Zubiaur plazan

03.08. LARUNBATA. 19:30ean
Antzerkia Orozkon : "Las chicas serias no gustan"
TOKIA: Donibane aretoan

03.08. LARUNBATA. 19:15etan
Maskara ez sexisten eta txontxongiloen tailerra
TOKIA: Orozkoko liburutegian

03.08. LARUNBATA. 20:00etan
Antzerkia: "Lorquianas"
TOKIA: Amurrioko antzokian

03.09. IGANDEA. 18:00etan
Hitzaldia Inma Roizekin
TOKIA: Okondoko eskolan

03.10. ASTELEHENA. 18:30ean
Hitzaldia: Abortu legea
TOKIA: Okondoko eskolan

03.11. ASTEARTEA. 17:00etan
"Mujeres de Antaño en Artziniega" dokumentala
TOKIA: Artziniega

03.11. ASTEARTEA. 18:30ean
Antzerkia: "Machomaris"
TOKIA: Laudioko ULHE

03.12. ASTEAZKENA.17:00etan
Te-tertulia: adin ezberdinetako emakume saharauarrak
TOKIA: Laudioko erabilera anitzeko aretoan

03.12. ASTEAZKENA.18:30ean
Laburmetrai-foruma eta "Chai" tea Amurrión
TOKIA: kultur etxean

03.13. OSTEguna.18:30ean
Abortuaren araudiaren inguruko mahaingurua
TOKIA: Laudioko kultur etxean

03.16. IGANDEA.10:00etan
Autodefentsa ikastaroa Maitena Monroyrekin
TOKIA: Laudioko kiroldegian

Balio bera, soldata ez

Krisiak desberdintasuna eta genero diskriminazioa areagotzen ditu. Emakume batek gizon batek baino 84 egun gehiago lan egin beharko lituzke soldata berdina jasotzeko.

ERREDAKZIOA | Juanjo Basterra

Krisi ekonomikoko garaietan enpresariak eta gobernuek egoera honi probetxu ateratzen diotemozkin gehiago izateko. Lan munduan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasuna hiru osagaietan oinarritzen da: zeregina, kontratazio mota eta soldatak.

Errealitateak erakusten du Europar Batasuneko gobernuek, orokorrean, ez dutela galarazten egoera horretan eroso dauden enpresariak, emakume baten kontratuarekin duten kostua txikiagoa delako, modu zuzenean mesede egiten dien diskriminazioa urterik urte errepikatzea.

Izan ere, soldata-desberdintasuna %26aren inguruan aurkitzen da, emakumeek kontratu prekarioagoak dauzkate eta desegonkortasun handia jasaten dute. Generoagatik soldata-desberdintasuntzat jotzen da gizon eta emakumeen batezbesteko irabazien desberdintasuna gizonezkoen irabazien batezbestekoaren portzentajea adierazita.

Lanaldi laburren %80a emakumeek sinatzen dute. PPren Gobernu espainolak, gainera, kontratu mota hau aldatu du gehiago lan egitera derrigortu ahalizateko, baina ia ia prezio miserable berdina jasota, gehienetan 550 eurotan kokatzen da, eta kasurik hoberenean 770 eurotan.

Horrela, kontratu mota honekin langileek egin ditzaketen lan-ordu osagarrien kopurua handitu da. Erregulazio berriak ahalbidetzen du enpresariak langileei euren lanaldi arruntaren gainetik %90 gehiago eginaraztea; orain arte, portzentaje hori, gehienez jota, %60koa zelarik.

Gainera, lanaldiaren handitze hori jakinarazteko duten epea txiki da. Emakumeak dira aldaketa hauek gehien sufrituko dituztenak.

EBan emakume eta gizonen arteko soldata-desberdintasuna %17,7an kokatzen da eta gure esparruan %26tik hurbil, azken datuen arabera. Okupatuaren artean, soldata-desberdintasuna %23ra iristen da; langabezia dau-duten pertsonen artean, emakume eta gizonen langabeziagatik prestazioen arteko desberdintasuna, batez beste, %15,2koa da, baina soldata-desberdintasuna izugarri igotzen da pentsiodunen artean. Emakume pentsiodunek, batez beste, gizon pentsiodunek bai-

no %38,17 gutxiago jasotzen dute. Horrek guztiak lan-bizitza osoan zehar batez besteko %25,45eko soldata-desberdintasuna suposatzen du.

Honek ondorioztatzen du, UGTk azaltzen duen moduan, emakume batek gizon batek baino 84 egun gehiago lan egin behar dituela, antzeko soldata biltzeko.

Errealitate larri honek pobrezia tasa ere handitzen du. Lanaldi laburra duten emakumeek, Estatu espainolean %18,3ko pobrezia tasa sufritzen dute, Europako emakumeek baino lau puntu gehiago eta okupatutako gizonezkoen artean ematen den pobrezia tasa baino zazpi puntu gehiago.

Kontratazioa eta langabezia

Enplegu eta kontratazio arloetan ere emakumeak eramaten du zatirik txarrena. Aiaraldean, krisiaren hasieratik emakumeen kontratazioa, orokorrean, erdia baino gutxiagora jaitsi da eta langabezia hiru koiztu baino gehiago egin da. Une honetan langabezia tasa femeni-noa gainetik dago kasu guztietan. Aipagarria da Laudioko kasua, langabezia femeni-noaren %22,1arekin, atzetik jarraitzen dute Artziniegak (%19,7), Amurriok (%19,3), Urduñak (%18), Aiarak (%13,5), Arrankudiagak (%12,6), Okondok (%11,1), Orozkok (%7,8) eta Arakaldok (%7,7).

Azken egunotan lanaldi laburra izan dutenentzako pentsio sistema bat onartu da. LAB sindikatuak gogoratu zuen Espainiar Kongresuak eta PPren Gobernuak pentsioen arloan emakumeen diskriminazioarekin bukatzeko aukera bat galdu dutela. Gogoratu behar da, Europako Justizia Auzitegiak 2012ko azaroaren 22ko sententzian jaso zuela erretiro-pentsioa eskuratu ahalizateko lanaldi laburreko kotizazioen konputua erregulatzen duen espainiar araudia aldatu beharra zegoela Eskubide Komunitarioaren aurka joateagatik. Izan ere, emakume eta gi-

zonezkoen arteko tratua berdina-ren printzipioa urratzen zuen. Espainiar araudiak emakumeen kontrako zeharkako diskriminazioa suposatzen zuen, lanaldi laburren %80a emakumeek burutzen dutelako. Espainiar araudiak, Europak salatutako lanaldi laburrazuten langileen kolektiboari erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea izateko egunkopuru handiagoa egiaztatzea eskatzen zion, eta gainera, ematen zen pentsioen kantitatea txikiagoa zen lanaldi arruntaren zati baten gainean kalkulatu zelako; hortaz, diskriminazio bikoitza existitzen zen.

Konfederazio sindikalak hau islatzen du: "batez ere lanaldi laburra zuten emakumeak nagusi ziren lan zentroetan kanpaina informatiboa burutu genuen eta kaltetutako langileen partetik Gizarte Segurantzari eman genizkion 7.000 eskaera baino gehiago jaso genituen (3.545 Bizkaia, 3.600 Gipuzkoa, 780 Nafarroa); erretirorako pentsioa eskuratzeko lan egindako egun bakoitza kotizatutako egun gisa hartzea eskatzen zuten". Hala ere, espainiar gobernuek emakumeak diskriminatuko ez zituen "berdintasunezko pentsio sistema bidezkoa" ezartzeko aukera galdu zuen.

Emakumeek burututako lanari balio eta errekonozimendu bera eman gabe jarraitzen du, "izan ere, lan egindako egun bakoitza kotizatutako egun bat izan gabe jarraitzen du, benetan kotizatzen diren egun kopurua kalkulatzeko, lan egindako egun kopuruari koefiziente partzial bat aplikatuko zaio". Hori dela eta LAB sindikatuak zera dio "egun-go erregulazioak erretiro-pentsioa jaso ahalizateko gutxieneko kotizazio aldia murrizten badu ere, kotizatutako 15 urte frogatzen ez dituzten pertsona guztiek euren pentsioa murriztua ikusiko dute, 15 urte horietara iristeko falta zaien aldiaren proportzioan".



_kultura

Inauteriak, tradizio zaharrak eta ohitura modernoak



Herri gehienetan ospatuko dira inauteriak. Irudian, Laudioko ekitaldietako bat Argazkia: Jaiak Koordinakundea

ERREDAKZIOA | I Txabi Alvarado Bañares

Iristear daude aurtengo inauteriak. Edo aratusteak. Izan ere, inauteriak "ekialdetik datorren esamoldea" da, Felix Mugurutzak ikerlari audioarraren arabera.

Bere ustez, Aiaraldeko jatorrizko terminoa aratusteak da, haragi-hustea; garizumarekin hertsiki ⁽¹⁾ lotuak baitaude inauteriak.

Izan ere, garizuma bitartean ezin zen ez haragirik jan, ez alkoholik edan, ez sexu harremanik izan. "Penitentzia aroa ⁽²⁾ zen", Mugurutzaren hitzetan, "Ramadan moduko bat, azken finean". Garizuma baino lehen bazegoen era guztietako gehiegikeriak egiteko tarte bat, eta hortik dator gaur egungo moztorro festa.

Mozorroren kontzeptua, baina, aldatu egin da denboraren poderioz. "Lehen moztorroak ez ziren gaur egungoak bezain landuak. Irudigrotresko bat egiteko baliatzen ziren; orain galdu egin dute lehen zeukaten xarma ⁽³⁾", azaldu du ikerlariak.

Esualdeko pertsonaiak

Tradizio zaharrekin batera ohitura ez hain zaharrak daudela gaineratu du: Leziagako sorginarena eta Amurrioko Kakarro Judasena kasu. "Leziagako sorgina oso eza-guna zen herri tradizioan, baina ez zeukan inauteriekin zer ikusirik", azaldu du Mugurutzak.

Sorgina erretzearen ohiturak 30 urte inguru izango dituela uste du ikerlariak. Erreketaren helburua? "Gaitzak uxatzea ⁽⁴⁾, buduan edo magia beltzaren kulturen bezala".

Sorginarenak eta Kakarro Judasenak "tradizio modernoak" diren arren, Aiaraldeari hertsiki lotutako tradizio zaharrago bat dagoela

azpimarratu du Mugurutzak: oilar batekin etxez etxe dirua eskatzen joatearena.

Eguna bukatzerakoan sakrifika-tu egiten zen animalia, "oso sexuzaleztat hartzen zelako eta horregatik zigortu egin behar zelako".

Frankismoan, debekatuta

Frankismoarekin batera ospakizun horren debekua etorri zela azaldu du audioarrak. Ondorioz esualdeko oso herri gutxitan mantendu egin da ohitura.

Arrankudiaga da herri horietako bat. Bertako umeak urtero ateratzen dira oilar baten konpainian herriatik abastera.

Galtzen joan den beste ohituretako bat sardinaren hiletarena da. Ardoa edateko aitzakia moduan jaten ziren sardina zaharrak aratusteetan, eta animalia hiletarekin aratusteen bukaera irudikatzen zen, ardoa edateko eta festa egiteko garaia bukaera. Ohitura hori "herri gehienetan" mantentzen dela uste du Mugurutzak. Baina Laudion, adibidez, galdu egin da ohitura, nahiz eta Mugurutzak duela gutxira arte mantendu egin dela oroitu ⁽⁵⁾ duen.

Ohitura modernoak

Tradizioak tradizio eta jatorriak jatorri, urteroko zita da inauteriena. Herri bakoitzak bere egitarau propioa du, berezko berezitasunekin.

Laudion, adibidez, aspaldiko ohitura bat berreskuratu dute: inauteriak herriatik eta herriarentzako antolatzerena.

Garai batean Galtzagorri kultur elkarteak arduratzen zen festa antolatzeaz, baina antolatzeari

Frankismo garaian inauteriak debekatzearen ondorioz ohitura zaharrak galdu egin dira. Baita berriak sortu ere. Horien artean daude Amurrioko Kakarro Judas eta Laudioko Lezeagako sorginaren erreketak.

utzi zionean udalak enpresa pribatu bat kontratatu zuen jaiari jarraitkortasuna emateko. Orduz geroztik enpresa pribatuaren esku geratu zen Laudioko inauteriak antolatzearen lana, 2011ra arte. Urte hartan eman zen aldaketa. "Halako jaiak herritarrek antolatuak izan behar zirela pentsatu genuen, eta orduan udalari jaien kudeaketa gure gain hartzea proposatu genion", azaldu du Mikel Ayllon Jaiak Koordinakundeko kideak.

Esan eta egin. Lau urte daramatzako koordinakundeak inauteriak antolatzen, eta ugariak izan dira egitarauan egin dituen aldaketak. Festan parte hartzen duten elkarteekin komunikazio bat eman da horretarako, Ayllonen hitzetan; "gauzak nola hobetu jakiteko".

Aiaraldeko gainontzeko herriek ere euren egitarau propioak dituzte, urtero antzeko eskemak mantentzen dutenak.

Inauteriak, herriz herri

Larunbatean Kakarro Biragarro moztorro lehiaketa egiten dute Amurrioren, eta Kakarro Judasen erreketak asteartean. Txokolatada eta berbenak lagunduko ditu ekitaldiak.

Urduñan ere desfilea egiten da larunbatean, eta asteartean ematen zaio bukaera jaiari.

Arrankudiagan, Mugurutzak aipatu bezala, eskolako ikasleak oilar batekin ateratzen dira "Eguen zuriko koplak" kantatzera. Ondoren, gizarte etxean afaria eta par-randa egiten dute.

Okondon, Orozkon, Artziniegan, Luiaondon eta Aiaran ere badago zer ospatua larunbatetik asteartera bitartean.

Arakaldo da salbuespena. Inauteriak aste bete beranduago ospatuko baitira, martxoaren 8ko larunbatean. Kun-kun batukadarekin kalejira egingo dute herritarrek, Herriko Plazatik Herriko Tabernara. Askaria izango dute bertan zain. Oso berritzailea ez dirudien arren, festarik modernoena da Arakaldokoa, iaz antolatu baitzen lehenbizikoz.

Aiaraldea.com webguneak inauterietako jarraipen berezia egingo du. Herriz herri antolatzen diren ekitaldiak argazki eta bideoan jasoko ditu.

Hiztegia: hertsiki ⁽¹⁾, estuki / aroa ⁽²⁾, garaia / xarma ⁽³⁾, grazia / uxatzeko ⁽⁴⁾, urruntzeko / oroitu ⁽⁵⁾, gogoratu.

+info: argazki bildumak: Amurrioko inauterietako irudiak, Laudioko moztorro lehiaketa...



Patxi Iturregi IDAZLEA

_Kamerinoa

Kultur eskaintzaren ajeak

Oraindik, zoritxarrez, euskarazko kultur eskaintza ez da oso oparoa gure bailarran, urria eta gorabeheratsua baizik. Batzuetan larregi eta gehienetan ezer ez, horrela labur daiteke gure egoera tamalgarrria. Eta, era horretan, nahi gabe, gure urdail kulturalerako kaltegarriak izan daitezkeen ase-goseak egitera behartuta egoten gara maiz, abenduan bezala. Laudion, arratsaldeko zortzietan, "Gabrielen Lekua" musika-ikuskitzuna programatuta zegoen Lanbide Heziketa Eskolan, eta, ordu berean, hamar kilometro eskasera, Amurrio Antzokian "Lingua Nabajorum" euskarazko antzezlan sarritu berria. Niri, aukeran, ikuskitzuna bietara joatea gustatuko zitzaidakeen, baina ezinezkoa zenez eta antzerkirako sarre-rak aldeztetik erosiak niretuela aprobetxatuta, Amurriora jo nuen emaztearekin batera. Ez genuen damurik izan. Patxo Telleriaren eta Mikel Martinezen lana bikaina izan zen. Izan ere, azken komedia honek ere, aurrekoek bezala, euskara bera du leit motiv, eta luzitu egiten dira aktore biak ironiaz beteriko elkarrizketa txoro, absurdo eta barregarriekin. Etxerako bueltan, ordea, zera komentatu nion emazteari: "Bai polita eta erosoa Amurrioko antzokia! Laudion ere horrelako baten beharrean gaude". Bat etorri zen bera nik esandakoarekin, eta honela segitu zuen: "Dirudienez, krisiak bertan behera utzi du Altxarrateko egitasmoa. Dena dela, ba omen dabilta LHEko areto zaharra berritzekotan. "Hasteko bada zerbait", erantzun nion nik. Eta biak pozik Laudiora.



_kultura


_kultur leihoa

WEB-GUNEAN KULTUR PROPOSAMEN GEHIAGO
IRAKURGAI ETA ENTZUNGAI www.aiaraldea.com/proposamenak



ZINEMA
EUSKAL PILOTA: LARRUA
AZALAREN KONTRA
Lander Arteaga.

"Euskal pilota, euskal gatazka-
ren irudikapen giza. Larrua ha-
rriaren kontra, guk, euskal herri-
tarrok, historikoki gure artean bi-
zitako erlazio zailaren isla. Pilota
paretan kontra, joan etorrian..."



LITERATURA
HODEI
BERDEAK
Irati Maraño.

"Idazle batek beka bat irabazi
du nobela bat idazteko. Iragan
mendeko 60ko hamarkadan gi-
rotu du, Iruñako giro abertza-
lean. Kontua da, baina, bekaren
diru hartu eta ospa egin duela."



BIDEOA: Hobetzeko bidea, Apdemaren ekitaldia. Amurrioko Apdema
elkarteak antolatutako ekitaldiaren bideoa ikusgai webgunean



Pasa den ostiralean estreinatu zuten Bilbon Godot obra Argazkia: aiaraldea.com

Godot antzezlan aurkeztu du Pablo Ibarluzeak

ERREDAKZIOA | Aitor Fernandez de Pinedo

Pablo Ibarluzea audioarrak zu-
zendutako Samuel Becket irlandar-
raren *Godoten esperoan* antzezla-
naren bertsioa estreinatu berri dute
hilaren 21ean Bilboko Pabellón nº6
arte eszenikoetarako gunean.

Yin de Yan, Pablo Ibarluzeak sor-
tutako antzerki eskolak, eta Pa-
bellón 6 guneak ekoiztutako "Go-
dot" honetan Jon Zumelaga, Patri-

cia Urrutia, Pako Revueltos eta Ai-
tor Fenandino aktoreek osatzen
dute antzezle-zerrenda.

Absurdoa oinarri

Absurdoaren antzerkiaren ba-
rruan kokatzen den lana da *Godot*,
existentzialismoarekin lotutakoa.

Bi pertsonaia, Vladimir eta Es-
tragon, zehaztugabeko toki batean

daude zuhaitz baten ondoan Godoti
itxaroten. Biekitalditan zehar Pozzo
eta Lucky pertsonaia hurbilduko
zaizkie egoera ezberdinak sortuz.

Godoten esperoan antzerkiaren
klasikoetako bat da. Bertsio hone-
tan Vladimir Vladimir da, Estragon
Estragon da... eta bertsio honetan
biak daude Godoti itxaroten... Ber-
tsio honetan ere Lucky eta Poz-
zo bat azaltzen dira... Zerbait ez-
berdina izango den? Hara... kontu
asko...". Horrela laburbildu dute an-
tezlana ekoizleek; "Hau da klasi-
koaren inguruan sortu dugun ber-
tsioa. Gustuko ez baduzu beste bat
dugu".

Emanaldiak

Emanaldiak ostiral, larunbat eta
igandeetan eskainiko dituzte: otsai-
lak 28an eta martxoak 1, 2, 7, 8, 14,
15, 21, 22, 28 eta 29an. Saio guztiak
20:00etan izango dira, bat izan ezik:
martxoaren 9an 19:30ean eskaini-
ko dute obra. Sarrerak Pabellón 6
gunearen web atarian erreserba
daitezke 15 eurotan. Bertoko baz-
kideek %20 eta %30eko deskon-
tuak dituzte eta 25 urtetik behera-
koek %50eko deskontua.

Pablo Ibarluzeak 33 urte ditu, bai-
na ibilbide luzea darama antzerki-
aren munduan. Batetik, clown gisa.
Eta, bestetik, antzerkian. Europa
osoan zehar antzerkiaren inguru-
ko ikastaroak eman ditu. Besteak
beste, Espainian, Frantzia, Ingala-
terran, Irlandan, Norvegian, Brasi-
len edo Argentinan. *Godoten* ema-
naldiak bukatutakoan, Le Cirque du
Soleil konpainiarekin arituko da.

Ane Saiz hirugarren Euskaltzaindiaren narrazio lehiaketan


Ane Saizek hirugarren postua
lortu du Euskaltzaindiak antola-
tzen duen narrazio lehiaketan.
Astelehenean jakinarazi zituzten
sarituen izenak. Irakasleek aipatu-
ta, Audio BHI institutuko bi ikas-
le animatu ziren parte hartzen.
Horietako batek, Ane Saizek, lor-
tu du hirugarren saria. Sari bana-
keta datorren ostegunean izango
da, 11:00etan, Euskaltzaindiaren
Bilboko egoitzan.

Parkeko ondarearen defentsan flashmob bat grabatuko dute

SOS Lamuza Parkea platafor-
mak flashmob bat egingo du api-
rilaren 11n, Dolumin Bariku egu-
nean, ondare historiko eta kultu-
rala defendatzeko. Ordua zehaz-
teke badute ere, herriko eragile
ezberdinek parte hartuko dutela
aurreratu dute. Horretarako, el-
karlana abiatu dute. Ekimenaren
helburua da parkeko eremua es-
kaintza kulturalerako erabilga-
rri egotea.

AISZIRIMOLA:
Umeen plazera eta
kili-kiliak

Entzun Aiaraldea Irratian
hezuntza ez formalari
buruzko irratsaioa



KOLDO
Ulibarri
HISTORIAZALEA

_Lurpetik

Aratustek

Aratuste eguzariaren aitzakian, 1688an Urduñan gertaturiko soka-
-dantza baten berri dakarkigu, dantza berezia apaiz kabildoa izan zue-
lako protagonista. Kabildoaren eta Udalaren arteko tira-bira bat ge-
nuke leherrarazle, abadeek manifestazio bitxi hau antolatu ei zuten
eta.

Izan ere, abuztuaren 17an, apaizek txistulari bat ekarri zuten goi-
zean antolaturiko elizbira batean jo zezan. Arrastian baina, bes-
te asmo bat zuten: zazpi abadek (aurresku- eta atzeskularia barne),
euren eliza-janzkera disimulatuz, soka-dantza bat hasi zuten. Aba-
de mozturrotuak parrokiatik irten ziren eskutik oraturik eta, danbo-
lin soinuaz, plaza nagusia igaro eta hiriko kaleetan zehar ibili ziren so-
ka-dantzan eguna argitu bitartean. Gautu zenean dantzari utzi ordez,
argi-zuzi bat irazeki eta hiri-bazterretan jarraitu zuten dantzariak. He-
rriko biztanleek, mutil eta nagusi, soka-dantza bitxi hau kalerik kale
lagundu zuten eta, nola ez, egungo manifestaziotan lege "Gora ka-
bildo!" eta antzeko oihuak entzuten ziren soka-dantzan zehar. Di-
rudienez, guztien artean aureskularia zen oihu, salto eta artazirik
gehien egin zuena.

Udalak probokaziotzat jo zuen abadeen dantza hau, eta apezpikua-
ri berri ematea erabaki, honek apaizak zigor zitzaiz. Alabaina, ez daki-
gu apezpikuaren agindua edo dantzariak inolako zigorririk izan ote zu-
ten.

KONTRATATU PUBLIZITATEA

AIARALDEA EGUNKARIAN
EDO WEB-GUNEAN

konsultatu
tarifak eta
eskatu aurrekontua

publizitatea@aiaraldea.com





kirola

ZIKLOKROSSA

“Mundialeko emaitzarekin oso pozik nago; hogeita hamaikagarren postua lortu nuen”

GOTZON MARTIN (Orozko, 1996) ziklokrossean eta txirrindularitzan aritzen da. Oraintsu, Holandako mundu mailako proban hartu du parte. Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak irabazi ditu. Baita Igorreko nazioarteko proba ere. “Oso zaila” dela dioen arren, txirrindulari profesionala izatea du amets.

ERREDAKZIOA I Ane Intxaurreaga

Ziklokrossean zabiltza. Nondik datorkizu grina?

Betidanik errepidean ibili naiz baina ziklokrossa betidanik gustatu zait. Duela lau urte hasi nintzen, gustatu egiten zaidan modalitatea da, nahiz eta oso gogorra eta esplosiboa izan.

Ugaoko taldean zabiltza. Zer-gatik?

Ugaoko taldean hasi nintzenetik nago. Herritik gertuen dagoen txirrindulari elkarte denez aitak hor apuntatu ninduen. Zaletasuna etxetik datorkigu, aita gaztea zenean mountain bikean ibiltzen zen. Ni txikitan ere berdin nengibilen, baina errepidea eta ziklokrossa gehiago gustatzen zaizkit.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Normalean astearte eta asteazkenetan intentsuagoak dira. Astelehen eta ostiralean motelagoak; karreretatik errekupeatzeko eta forma onean iristeko. Astebururo ditugu lasterketak. Orain, deskan-tsu pixka bat hartzen na-

bil, bost aste karrera gabe egongo naiz; errepidean lehiatzeko prestatzeko.

Saririk irabazi duzu?

Aurten Bizkaiko txapelketa irabazi dut, ziklokross mailan. Baita Euskadikoa ere. Igorreko nazioarteko ziklokross txapelketan ere lehenengo geratu nintzen eta Duranaren ere bai. Horiek izan dira irabazi ditudan garrantzitsuenak. Hala ere, zaporerik onena Igorrekoak utzi zidan, betidanik ikustera joan naizelako. Munduko kopa zen lehen, gaur egun diru faltagatik ez da mundukoa, baina oso maila altua du eta hori da niri gehien gustatzen zaidan proba.

Esfortzu asko egin behar da horretarako?

Bai, azkenean ikasketak eta entrenamenduak konpen-tsa-

“Mundialeko esperientzia oso ona izan da. Zirkuituan 50.000 pertsona egon ziren ikusten. Oso maila handia dago”

tu behar dira. Astea nekatuta bukatzen duzu, txirrindularitzan egunero entrenatu behar delako. Astean egun bat libre izaten dugu atseden hartu eta deskonektatzeko.

Zer gustatzen zaizu gehien?

Txirrindularitzan dagoen giroa. Lasterketara zoazenean jende asko dago ikusten, errepideetako portuetan... Ziklokross probetan ere geroz eta gehiago ari da egoten. Eskualdean zale-tasun handia dago, Euskadi mailan jende asko aritzen da. Baita ikusle gisa ere.

Ziklokrossa ala errepidea, zein duzu nahiago?

Errepidea, irteera gehiago dituelako. Gaur egun txirrindularitza mailan oso zaila da profesionaletara salto egitea baina ziklokrossean are zailagoa. Izan ere, Espainia mailan postu onak lor ditzakezu, baina kanpoan, Belgika edo Holandan jende asko dabil eta zaila da.

Alde onak eta txarrak izan-

go ditu kirol honek, ez?

Bai, alde ona esfortzua egin eta postu ona lortzean pozik gertatzen zarela da. Txarra, lasterketan erorketa edo zulaketa baduzu dena pikutara doala.

Munduko txapelketan egon zara oraintsu, ez?

Bai, duela 3 aste. Esperientzia oso ona izan da, zirkuituan 50.000 pertsona egon ziren ikusten. Munduko onenak egon dira, maila oso handia dago. Holandan izan zen, Heiden hirian. Emaitzarekin oso pozik nago, 31. postua lortu nuen. Nire ustez apur bat hobeto egin nezakeen, baina askoz hobe ez.

Anekdotaren bat izango duzu kontatzeko, hortaz!

Munduko txapelketan egun txarra izan genuen. Hoteletik irten eta materiala zeraman furgoneta irauli egin zen. Lasterketaren irteerara justu iritsi ginen, ezin izan genuen beroketarik egin. Lehiaketako irteeran azken filan geunden, erorketa bat egon zen lehen filan eta zorte txarra izan genuen.

Erorketak garrantzitsuak dira, ez?

Bai, errepidean gehiago. Ziklokrosseko zirkuitua azkarra bada, denbora asko galtzen duzu eta gero ez dago zer eginik.

Kirolari gisa zein da zure ametsa?

Txirrindulari profesionala izatea, baina hori oso zaila da. Egunero entrenatu beharko dugu hori lortu ahal izateko.

TXIRRINDULARITZA:

Lau proba izango ditu martxoan zehar egingo den XXV. Aiarako Birak

ERREDAKZIOA I

Bihar aurkeztuko dute ofizialki Aiarako Bira Arespalditzan. Ekitaldia 19:30ean hasiko da eta inguruetako alkateek ere hartuko dute parte. Aurtengoa XXV. edizioa izango da, eta lau proba izango ditu.

Lehenengoa, martxoaren 1ean egingo dute, eta Audio izango du eremu nagusi. Ibilbidean zehar Luiaondora bi joan etorri egingo dituzte. Azkenekobiran, Arespalditza zeharkatuko dute, Izoriatik pasa eta Audio bukatzeko. Guztira, 44,2 kilometro egin beharko dituzte parte-hartzaileek.

Normalean 120 lasterkari inguru aritzen dira. Gehienak Arabakoak, Bizkaikoak edo Gipuzkoakoak dira. Irteera 16:00etan izango da, Zumalakarregitik. Antolatzaileek ordu bateko iraupena kalkulatu dute; “17:15 aldera bukatuta egon liteke”.

Eskualdeko zazpi txirrindulari

Eskualdeari dagokionean zazpi txirrindulari lehiatuko dira; guztiak Ganzedo taldekoak.

Txirrindulari denak kadete mailakoak dira, 15-16 urtekoak, hain zuzen ere. “Oraindik ez dago zehaztuta baina litekeena da neska gazteak ere aritzea”, adierazi dute.

Audioko etapari Artziniegakoak hartuko dio lekukoa. Martxoaren 8an izango da. Bigarren proban 44,6 kilometro egin beharko dituzte. Tartean, Garabilla portua igo beharko dute.

Hurrengo larunbatean, martxoaren 15ean izango da Amurrioko. Bertan, Saraube eta Murgako maldak zeharkatu beharko dituzte.

Azkenengo proba martxoaren 22an antolatuko dute; Murga eta Kexaa izango dituelarik hasiera eta helmuga puntu.

Era honetan erabakiko dituzte nortzuk diren indibidualki arinenak, mendiko sailkapenean garai-leak eta tarteko helmugetan azkarrenak.

BITARLAN
INFORMATIKA ETA WEB ZERBITZUAK

T [+34] 946 450 034
E bitarlan@bitarlan.net
H ARAKALDO (BIZKAIA)

- Webguneen garapena
- Kudeaketa eta Web aplikazioen garapena
- Sakelako telefonoetarako aplikazioak
- Mahaigaineko aplikazioak eta multimedia
- Ostatzeko zerbitzuak eta domeinuak
- Satelite bidezko Internet eta VoIP nekazar guneetarako

TEKNOLOGIA BERRIAK EUSKARAZ... EUSKARA TEKNOLOGIA BERRIETAN

www.bitarlan.net

EBE Argindarra

Zerbitzua Euskaraz

- Argiketariak Aiara osorako.
- Argi instalakuntzak eta mantenimendua (etxebizitza, pabilioietan, industrigintzan eta herriko argietan)
- Argiketari Tituludunak eta Homologatuak

f Ebe Argindarra
ebeargindarra@gmail.com
679.070.116



_kirola

SOKATIRA: Olga Artiñanok lau domina lortu ditu mundialean, Gaztedi taldearekin

Olga Artiñanok Irlandako mundialean oso emaitza onak lortu ditu Irlandako mundialean. Izan ere, lau domina lortu dituzte. Zehazki, hiru brontzezko domina eta zilarrezko bat. Aurreko lehiaketetan ere emaitza onak lortu zituen taldeak. Kirolari audioarra Laukizko Gaztedi taldearekin aritzen da.

ATLETISMOA: Geraxane Ussia hirugarren 400 metroko Espainiako txapelketan

Geraxane Ussia korrikalari lau-dioarrak hirugarren postua lortu du Espainiako txapelketako 400 metroko proban. Asteburuan izan da pista estaliko proba, Herrialde Katalanetako Sabadell herrian. Zehazki, 54.72 segunduko denboran bukatu du bidea, bere marka pertsonala hautsiz.



FUTBOLA: Audio eta Barakaldoren arteko partida eskainiko du martxoaren 1ean ETBk

CD Audio eta Barakaldoren arteko norgehiagoka telebistan emitituko du ETBk. Zuzeneko kontaketa 16:00etan abiatuko dute Ellakuritik. 2B mailako kirol ikuskizuna eitb.com webgunearen bidez ere jarraitu ahalko da zuzenean. Denboraldi honetan emititzen duten seigarrena da.



Itxaso
Escondrillas
KORRIKALARIA

_Helmugari so

Atletismoa

Urteak pasa ditugu emakumeok borrokan, gure lana defendatzen eta aurrera eramaten. Lehenago emakumeen lasterketak gizonezkoenak baino askoz motzagoak izaten ziren, hortaz, sari ekonomikoak baxuagoak. Hori zen behintzat ematen ziguten arrazoia. Azkenengo urteetan korritu beharreko distantziak parekatu dituzten arren, sariek baxuagoak izaten jarraitzen dute. Nire galdera zuzena eta gogorra izan daiteke: nola izan daiteke 2014. urtean diskriminazio hori gertatzea? Oso erraza iruditzen zait goi mailan ibiltzen diren hipokrita guzti horien "emakume eta gizonezkoen berdintasunaren alde" eta halakoak entzutea, baina errealitatea beste bat da. Emakumeok genetiki egin beharreko esfortzua kilometro horiek burutzeko, gizonezkoek egin beharrekoa baino handiagoa da. Hau errealitate biologikoa besterik ez da. Hortaz, gure esfortzuari eta lanari eman beharreko saria zergatik baliogabetu egiten dute mutilen aurrean? Galdera hau egiten duzunean antolatzailen aurrean, jasotzen duzun erantzuna tristeegia izaten da: "si no quieres el premio, no corras". Gora zuek eta zuen baliok! Benetan penagarria. Zorionez nik ez dut kirol hau diru kontuagatik egiten, nire lana daukat eta hau ondo pasatzeko kontu bat da. Jasotako diru kopurua zenbaki bat besterik ez da. Barruan geratzen den min eta tristura hori... hori bai sentimendu triste! Egunen batean gauzak benetan aldatuko direlakoan jarraitzen dut. Jarrai dezagun hasitako bidea, gure eta denon bidea.



Martxako partaide batzuk Argazkia: Alberto Romero eta Andoni Rodriggez

MENDIA: Artziniegako mendi ibilaldia, bosgarrenez

ERREDAKZIOA | | Xabi Zalbide

Martxoko lehen igandea aukeratu du aurten ere Ganzorrotz Mendi Kirol Elkartek herriko mendi ibilaldia egiteko. Bosgarren urtea da Artziniega Ibilaldia-Yarri Memoriala antolatzen dela. Ohi lez⁽¹⁾, alde batetik herriko natura, paisaia eta bideak ezagutzera emateko eta mendizaletasuna sustatu nahi da. Eta, beste alde batetik,

aldi berean eta izenak berak dioten bezala, gogoan izan nahi dute Artziniegako mendi eta txokoen zabalzailek handiena izan zen Jose Manuel Yarritu "Yarri". Izan ere, Yarririk lan handia egin zuen bertoko eta inguruko mendizaletasuna zabaltzen eta "Recorridos por Artziniega y alrededores" liburuan bildu zituen Artziniega Ibilaldia pres-

tatzeko oinarri diren ibilbideak. Gai xotasun baten ondorioz hil eta urte gutxira, 2010an hain zuzen ere, ibilaldi hau egiteko asmoa izan zuen Ganzorrotz taldeak.

Bi ibilbide

Aurreko urteetan bezala, udalerriko mendi eta basoetan barrera bi ibilbide prestatu dituzte antolatzailerek.

Azaldu dutenez, 2013an egindako antzerakoak dira biak; baina amaiera ezberdinarekin: bata luzea izango da, 26 km-koa.

Etap luzeenean Peñalba, Otsati eta Zaballa mendietatik pasatuko dira mendizaleak. Ibilbide nahikogorrra da, guztira 1400 metroko desnibel metatua⁽²⁾ izango baitu.

Laburrak, berriz, 12 km izango ditu eta Artziniegatik Soxogutira eta Soxora joango da. Tarte batez errepidetik igaroko da bidea, beraz. Handik Zaballa mendiko tontorre-raigo eta Barruelo auzoan barrera Artziniegako alde zaharrera itzuliko dira partaideak.

Ibilbide laburra egokia da mendian ibiltzeko ohitura duten gazte- txoentzat ere, jakinda, gainera, negua dela eta bideak lokaztuta egon daitezkeela.

Ibilaldi luzea 8:00etan abiatuko da frontoitik. Laburra, aldiz, ordu eta erdi geroago, 9:30ean.

Izena eman daiteke web gunearen bidez otsailaren 27ra arte eta egunean bertan. Martxa luzerako 7:00etatik 7:45era eta 8:30etik 9:15era zirkuitulaburrerako.

Antolatzaileek jakinarazi duteenez, jatekoa eta edatekoa egongo da ibilbide luzean. Frontoian

odoloste eta txerriki erreka egongo da parte-hartzaile guztientzat 13:00etatik aurrera.

Ekitaldi jendetsua

Aurreko urteetan kirol-ekitaldi honek jende ugari erakarri izan du Artziniegara, bostehun eta zortiehun lagun bitartean urtez urte. Parte-hartzaile gehienak Arabatik eta Bizkaitik etortzen dira, bai eta Euskal Herriko beste herrialdeetatik eta atzerrikit ere. Antolakuntza lanetan ere jende asko biltzen da: iaz, esaterako, berrogei boluntario baino gehiago.

Ganzorrotzek azaldu duenez, helburua ez da lehiatzea, mendi zaletasuna sustatzea⁽³⁾ baizik.

Parte-hartzaile guztiei txartela emango zaie haien datuekin, kontrol guneak adierazita eta ibilaldian zehar balizko gorabeherak jakinarazteko harremanetan jartzeko telefonoekin. Mendizaleek aukeraturako bidea egin beharko dute, kontrol guneak zeharkatuz eta txartela aurkeztuz.

Informazio guztia eta alde zurreretik izena emateko formularioa Ganzorrotz Mendi Kirol Elkartearen web gunean topa daiteke (<http://ganzorrotz.wordpress.com>). Izen-ematea doakoa da.

Hiztegia: lez⁽¹⁾, gisa, bezala / metatua⁽²⁾, pilatua / sustatzea⁽³⁾, bultzatzea.

+info: argazkiak: 2012ko Artziniegako mendi ibilaldiko irudi bilduma.



"Ohorezko Txakolina"

EUKENI TXAKOLI

MASALARREINA Z/G- 01468 ARTOMAÑA - AMURRIO (ARABA)
TLFNOA: 945 89 12 11 WWW.EUKENI.NET

XARMANT Txakolina

Ardo desberdin batez gozatu

Xarmant Txakoli

AMURRIO (ARABA) TLFNOA: 945 89 12 11
WWW.XARMANT.ORG



Herriko plaza

Lagurrak



Naroa

Zorionak Naroa! Martxoaren Gan zazpi urte beteko duzu. Uauu! Bikain pasa zure egunean. Muxu handi bat! **Zure familia**



Udane

Otsailaren 24an, duela 22 urte, neska jator hau jaio zen. Zorionak Udane! Egun bikaina pasatzea eta juerga handia botatzea espero dut. **Zure laguna Nerea.**



Luken

Bost muxu haundi Amatsu, Aitatu eta Urtziren partez. Mua, mua, mua, mua eta mua! **Amatxo, aitatxo eta Urtzi.**



Carlos

Zorionak! Oso ondo pasa eta disfrutatu zure jubilazioa! **Zure arreba eta senideak**



Jone

Zure eguna bereziagoa izan dadin zure koadrilaren partez muxu erraldoia! **Zure lagunak**

#sexgatik (:><:)

Mutilek “bukake, bukake” diote, zergatik? (Jon)

Egia da, modan dago, mutil gazte asko “Bukake, bukake!” komunikatzen dira. Baina nondik dator kontzeptua? Bukake hitza japoniar bukakeru aditzetik dator, jaurti, ureztatu edo isuri esan nahi du. Bukake pornografia generoa eta taldean egiten den sexu praktika bat da. Mutil talde bat pertsona baten aurpegian edo ahoan eiakulatze-ko txandakatu egiten da, normalean, belauniko dagoen neska baten gainean nahiz eta inoiz mutila den. Beste batzuetan, semen hori ontzi batean hustu eta edan behar du, mutilen artean oso ezaguna den gailetaren jolasa antzekoa. Zure gelako mutilei galdetzen badiezu, praktika azaltzen jakingo dute? edo imitazio bidez harremantzeko erabiltzen dute? Seguru ez dakitela zergatik sortu zen. Jatorria japoniar dinastiatik dator (k.a. VII.mendea); emakumeen kontrako zigor sexuala zen. Infidelotasun zigorra. Emakumea umiliatzeko sexu praktika zen. Japoniar jendarteak, emakume infidelak, bere burua desohoratu egiten zuela defendatzen zuen, beraz, umiliatua izan behar zen, betiere, komunitatearen ongizatea babes-teko. Azkenik, 90.hamarkadan, japoniar porno industriak hedatu zuen bukake-a, porno generoa bilakatu. Alu edo uzki penetrazio eszenak debekatuta zeuden, eta publikoa erakartzeko harrigarriak ziren beste bide batzuk sortu behar izan zituen niponiar legeak ez hausteko. Beraz, jolasean norberaren onespina eta umiliazioa ez dira sinonimoak, ez duzu uste? **Julene Onaindia Garcia**

denborapasak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUIN

1. Gipuzkoako herri honi zordio izena mundu osoan famatua den gaztak. 2. Gauzaren batetik sua edo argia sorrarazi. Jardun. 3. Jupiterren satelitea duzu honakoa. Ezkonduta egon ala ez, andre edo emakume da beti. 4. Gizaki edo gizabanako guztien multzo, gizajende. Kontsonantea. 5. Ozeaniko irla eta estaturik handiena. 6. Euskaraz urri dira aurreneko hizkia bila duguna daukatenak. Halaxe esaten diote ipar euskal herritarrek handi samarra denari. 7. Arabako udalerri bateko. Bat eta bostehun, baina erromatarren erara. 8. Zer lekutan? Estatu Batuetan eta Britainia Handian, isurkarien edukiera unitate. 9. Gezurrezko arrazoiak, egiazko zergatiak estaltzeko ematen direnak.

EZKER-ESKUIN

1. Ibaia gainera igitarabide. Aranondoaren fruitua. 2. Esaten ari gara. Atomokargadun. 3. Bizia erdi-erdian. Une, momentu labur. 4. Nafarroako Atetz herriko biztanle. Azkeneko kontsonantea da orain eskatzen dizuguna. 5. Gipuzkoako udalerria, Secundino Etxeola musikariaren sorteria. 6. Lehenengo bokala. Zuhaitzen besoak. 7. Zotz baten itxurako bakterio zelulabakar luzaxka. Litoaren ikur kimikoa. 8. Ardi, hitz elkartzetean. Trebea, abila. 9. Belgikako hego-ekialdeko hiria eta ibaiportua, Georges Simenon polizia nobelen idazlearen sorteria.

	6				3	2	5
				5	2		6
3	2	7	6				
	4	7		2			
		5	9	8			
	8				5	4	2
			4				
	7			9	8	6	
2	4		3		8		7

		6		7			5
3			2	6		9	8
		5				2	4
2				5			6
	5	8					3
		3	8	4		5	
6						5	3
4							8
				1	2		9

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz geizidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>



horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Falta zena! Orain dietarekin? Pertsona bat ez du fisikoak berreitzen. Zarena zarelako harro egon! Kiloak gora-behera paregabea zara eta hori egunero ospatzekoa da.



HERENSUGE

03.21-04.20

Zenbat negar ta zenbat min... Hunkipenak muga bat izan behar du. Besteen laguntzaren zain egon beharrean zuri dagokizu oztipoie aurre egitea. Gogoa da arazoak konpontzeko bide bakarra, beraz, aurrera egin kementsu!



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Ene! Maletak egin, kide bat to-patu eta bidai bat antolatu behingoz! Zure bizitzaren krisiari erremedio bat jarri, lana ez baita bizitzako helburu bakarra. Marradun bikini jantzi eta errealtate baina bat hartu!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Aholkuei gor? Juerga erritmoa jaisteko esan banizun ere mar-txa berdinean jarraitzen duzu. Asteburu honetan behintzat saia zaitez izotz gutxiago botatzen edariari, gripea gogor dabil eta. Zaindu zaitez!



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Akerbeltz... dena ez da beltz! Harreman batean bi pertsonak hartzen dute parte. Maitasuna zorientasunaren laguna izan behar da. Zure bizitzako koloretatu, konpartitu, baina beti besteak errespetatu.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Ondo etorri zaizu asteburua! Burua argitu eta altxorra birlatzeko gogoak piztu zaizkizu. Ekiozu bideari eta gogoratu: bidean dauden gauza guztiak berretako altxorra aurkitzeko pis-tak baino ez dira. Animo!



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Barne gatazkak dituzula? Inguru-koei aholkuak eskatu beharrean zure sentipenen bitartez mugitu beharko zinateke. Zu zara zeure buruaren medikurik onena, beraz, hausnartu eta erantzunak lortu-ko dituzu. Saiatu behintzat!



LAMIA

04.21 - 05.20

Erreka ustearen beldur? Erabaki garrantzitsua zurea, baina beharrezkoa. Familia ahaztu barik bidean aurrera egingo duzu. Uraren moduan harroen kontra egiten duzun bakoitzean korronteak beti leku berdineran eramango zaitu, ez beldurtu!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Zure ehuneko ehuna eman duzu nasieratik lanean. Indarra hartu eta erritmoa moteltzearen beharra aldarrikatu, lanpetuta ibiltzeak osasunean ondorioak ekarriko dizkizu bestela. Ausardiak onurak dakartza, ikusiko duzu!



JENTILAK

08.22 - 09.22

Lehenengo izatea da zure lema, baina nola? Lehenetsuna eman diozu nahi zenuenari, zure helburuak ahaztuz. Gauzak lortu daitezke, betiere garbi jokatu eta besteak errespetatu. Lehia alde batera utzi!



MARI

10.23 - 11.22

Animo txapeldun! Basoko erregina zurea erakusten jarraitu, zure erabakiek besteengan eragin positiboa daukate eta maite dituzun horiek zure aholkuak jarraituz egunero eskertuko dizute. Hori bai indarra zurea, jarraitu horrela!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Nora zoaz kontsumo maila honenekin? Diruak ez du zorientasuna erosten. Aurrerapauso bat emateko irabaziak gogo bihurtu, zure ezagutza beharrezkoagoa baitugu. Bildu ditzaun eskuak eta aldatu dezagun mundua!



_irakurlearen txokoa

_agenda

02.27 OSTEGUNA

19:00 LAUDIO
INAUTERIAK
Torrada tailerra
Zubiko etxean

02.28 OSTIRALA

11:30 ARTZINIEGA
INAUTERIAK
Eskolako desfilea
Herrian zehar

17:30 ARTZINIEGA
IPUIN KONTALARITZA
Aurpegi askoko ipuinak
Kultur etxean

17:00 LAUDIO
HITZALDIA
Paleontologoak,
iraganaren ikertzaileak
Kultur etxean

21:30 URDUÑA
KONTZERTUA
Hesian akustikoa
gaztetxean



19:30 ARESPALDITZA
AURKEZPENA
XXV. Aiara bira
Udaletxeko aretoan

20:30 ARRANKUDIAGA
INAUTERIAK
Mozorro festa
Gizarte etxean

22:30 LAUDIO
DANTZALDIA
Baisalaren mozerro festa
Antzokian

19:00 ARETA
INAUTERIAK
Pintxopotea eta dj Ruba
Kultur etxean

03.01 LARUNBATA

13:00 LAUDIO
INAUTERIAK
Orkestra
Herrian zehar

18:00 ARTZINIEGA
INAUTERIAK
Disko festa
frontoian

18:30 ARTZINIEGA
INAUTERIAK
Ogi txigortu eta mozerro
lehiaketa
frontoian

18:30 LAUDIO
INAUTERIAK
Mozorro desfilea eta
diskodantza
Aldai plazan

23:00 LAUDIO
INAUTERIAK
Karaokea eta Dj Windows
media player
gaztetxean

03.02 IGANDEA

08:00 OROZKO
IBILALDIA
Kanporamartxo: Araia
ko gaztelu eta sagardotegia
Zubiaurretik

08:00 ARTZINIEGA
IBILALDIA
Artziniegako mendi
martxa
Frontoitik

18:30 OROZKO
AURKEZPENA
EAJren bilera irekia
Donibane Aretoan

03.03 ASTELEHENA

11:00 ARTZINIEGA
INAUTERIAK
Umeentzako jolas parkea
frontoian

03.04 ASTEARTEA

17:30 URDUÑA
IPUIN KONTALARITZA
Enaitz pirata ipuinen
munduan
Kultur etxean

03.05 ASTEAZKENA

17:00 LAUDIO
ZINEFORUMA
Una cancio para marion
ULHE aretoan

03.06 OSTEGUNA

18:30 URDUÑA
WORLD KAFE
Berdintasunerantz bidean
Kultur etxean

03.07 OSTIRALA

19:00 URDUÑA
KONTZENTRAZIOA
Emakumeok gure
eskubideen alde borrokan
Udaletxean

21:30 LAUDIO
BERTSOLARITZA
Bertso afaria
Gure Aukeran

03.08 LARUNBATA

12:00 AMURRIO
KONTZENTRAZIOA
Bertsolariak, betibizien
banaketa...
Juan Urrutia plazan

13:00 LAUDIO
KONTZENTRAZIOA
Emakumeen alde
Lamuza plazan

17:00 AMURRIO
LASTERKETA
Berdintasunerako VII.
Herri Milia
Frontoi kalean

19:15 OROZKO
KONTZENTRAZIOA
Emakumeen alde
Zubiaur plazan

19:15 OROZKO
TAILERRA
Maskara ez sexistak
Liburutegian

19:30 OROZKO
ANTZERKIA
Las chicas serias no
gustan
Donibane Aretoan

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
Lorquianas
Amurrio antzokian

03.10 ASTELEHENA

09:30 LAUDIO
ERAKUSKETA
Lankidetzaren alde
argazki erakusketa
Kultur etxean

17:00 OKONDO
HITZALDIA
Etxeko segurtasuna
Kultur etxean

19:30 OKONDO
HITZALDIA
Abortu eskubidea
Kultur etxean

03.12 ASTEAZKENA

08:00 LAUDIO
IKASTAROA
Ekintzaile izateko
ikastaroa
Garapen agentzian

ZINEMA

03.01 LARUNBATA

"¿QUE HACEMOS CON MAISIE?"
LAUDIOKO ULHEN
17:30ean (3€)

03.02 IGANDEA

"JELLY T; TARZAN ESKASA"
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30ean

"EN LA FLOR DE LA VIDA"
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30ean

03.05 ASTEAZKENA

"UNA CANCION PARA MARION"
LAUDIOKO ULHEN
17:00etan (doan)

03.08 LARUNBATA

"MARINA ABRAMOVIC"
LAUDIOKO ULHEN
17:30etan eta 20:00etan (2€)

03.09 IGANDEA

"VAYA PAVOS"
AMURRIO ANTZOKIAN
17:30ean

"ASIER ETA BLOK"
AMURRIO ANTZOKIAN
19:30ean



etxaurre

inmobiliaria

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 169.000 €
60 m², 3 logela, bainugela, sukalde
amerikarra, eraberritua, garajea,
trastelekua, herrigunean.
Erref.: 167.422

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 240.000 €
170 m², 3 logela, 2 bainugela,
kanpoaldera, altzariz hornitua, garajea,
trastelekua, lorategia.
Erref.: 163.583

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 118.000 €
72 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera,
eraberritako, terraza, herrigunean,
aukera asko ditu.
Erref.: 160.329

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 196.000 €
97 m², 3 logela, 2 bainugela, balkoia,
kanpoaldera, igogailua, trastelekua,
garajea, altzariz hornitua, 2003ko
eraikuntza.
Erref.: 154.693

PISUA SALGAI ARRANKUDIAGAN
Prezioa: 155.000 €
65 m², 2 logela, eraberritako bainugela
hidromasaiarekin, kanpoaldera, altzariz
hornitua, igogailua.
Erref.: 167.227

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 206.000 €
82 m², 3 logela, 2 bainugela, sukalde
amerikarra, balkoia, kanpoaldera,
igogailua, trastelekua, garajea, prezio
negoziagarria.
Erref.: 99.725

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 169.000 €
60 m², 3 logela, bainugela, sukalde
amerikarra, eraberritua, trastelekua,
garajea.
Erref.: 167.422

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

AMURRIO ANTZOKIA



MARTXOAK 8 //
LORQUIANAS
ANTZERKIA
20:00 (8 €)



MARTXOAK 15//
ABESBATZEN
KONTZERTUA
ESKUTXIKO AHOTSAK-
ZANKUETA, HASPEREN
ABESBATZA,
ANDERE ABESBATZA, ZIRZIRA
20:00 (2 €)



MARTXOAK 22 //
OZEN.NET PROGRAMA
18:00: ITZIAR MARKIEGI
19:00: ELECTRIC LANDSCAPE
OF REBELLION
20:00: SOLASALDIA
(DOAN)



MARTXOAK 20//
URREZKO GUKaren
GALA: Aztarna
etnografika elkarte
(DOAN)
ZINEMA
21:00 (4,80 €)

Elexondo 26, Amurrio (Araba)
Tlfnoa: 945 39 37 04
www.amurrio.org

Jimmyjazz

gasteiz



MAR 01 // SHO-HAI
+ XHELAZZ + RDERUMBA
21:30 (10 / 13 €)



MAR 07 // KAOTIKO
+ Txapel punk
20:30 (11 / 14 €)



MAR 08 // THE SOULBREAKER
COMPANY + Wild Smoke
20:30 (10 / 13 €)



MAR 14 // LA RAIZ
+ BONGO BOTRAKO
+ Calavera Collective
20:30 (11 / 14 €)



MAR 15 // JAVIER
KRAHE
21:30 (12 / 15 €)



MAR 20 // BIDE
ERTZEAN
21:00 (8 €)

Andre Maria Zuriaren Koratzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

kafe antzokia

www.kafeantzokia.com



OTSAILAK 27 //
The Steepwater Band
21:30
(15/18 €)



MARTXOAK 06 //
Izaki Gardenak eta
Napoka Iria
21:00 (6 €)



MARTXOAK 07//
Travellin' Brothers eta
La Maravillosa
Orquesta del Alcohol
22:00 (12 / 14 €)



MARTXOAK 8 //
Shooter Jennings
22:00
(20 / 25 €)

San Vicente, 2, Bilbo (Bizkaia)
944 24 46 25 4
<http://www.kafeantzokia.com>

_ezin galdu



INAUTERIETAKO DESFILEAK: Larunbat honetan ospatuko dituzte inauteriak herri gehienetan. Arratsaldean zehar mozerro desfileak izango dira Amurrian, Laudion, Artziniegan, Urduñan, Oroskon...

_kontra

aiaraldea

Miren
Ayesa Aranoa
KAZETARIA

_Leihotik

Stockholmg
sindromea

Kasilda Marañon *Mozorro egilea*

“Sari asko irabazi ditut, baina ni jendearen txaloekin eta piropoekin geratzen naiz”

KASILDA MARAÑONEK (1948, Amurrio) 30 urte daramatza birziklatutako gauzeekin mozorroak egiten. Lehiaketa asko irabazi ditu. Gakoa, desfilatzeari saltsa ipintzea dela dio; “jendea pixka bat zirikatzea”.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren **Nondik datorkizu mozorratze-ko zaletasuna?**

Txikitan kamaroteak asaltatzen genituen mozorrotzeko. Beti gustatu zait mozorrotzea, baina berandu hasi nintzen egiten. Kanarietako inauterietan edalontziz egindako jantzi bat ikusi nuen eta pikatu egin nintzen. Polita iruditu eta semearentzat eta niretzat egin nuen. Niretzat mozorroa janztea bera saria da.

Sari mordo ere jaso dituzu, ez?

Bai, baina ni txalo eta piropoekin geratzen naiz. Gasteizen, Bilbon, Sestaon, Amurrian... sari asko jaso ditut. Mozorroekin sartu dudana denbora ikasten erabili banu, master eta karrera asko izango nituzke. Baina, auskalo, agian horrek ez lidake egungo bizi-za emango!

Zein da zuk egin duzun mozorrorik orijinalena?

Paper albala eta Solan de cabras ur botilekin egin nuen jantzia asko gustatu zitzaidan. Baita, laranjen poltsa gorriak eta latetan anillekin egindakoa ere. Papera-rekin bakarrik egin dut: *Egin* egunkaria itxi zutenean kalean egon behar zuela aldarrikatzeko. Urte horretan saritu nahi izan ninduten baina ez nuen onartu, helburua aldarrikatzea zelako, eta ez nuen lehiaketan parte hartu. Atun latekin ere egin daukat bat. Ur botilekin maitagarriz jantzi nintzenekoa ere oso polita izan zen.

Nondik ateratzen dituzu ideiak?

Nondik aterako ditut bai! Burutik. Normalean hiru edo lau gauza pentsatzen ditut, politena zein den erabakitzeko.

Normalean jantziak egiten ditut, hori da egin izan didaten kritika negatiboa. Niri berdin zait, hori da gustatzen zaidana eta! Beti dira modeloak eta birziklatutako gauzak.

Egunerokoan jendea kareta batekin bizi dela uste duzu?

Bai, urte osoan zehar. Nik ere eramaten dut noizean behin, baina geroz eta gutxiago gertatzen zait.

Gazteagoa nintzenean ez zitzaidan jendeak uste zue-na asko axola. Orain, bat ere ez.

Zein da irabazteko sekretua?

Nire mozorroak orijinalak dira, lan handia eskatzen dute eta nabaritzen da. Sestaora arto mazorkekin jantzia eraman nuen, eta lepokoan palomita. Jende asko harritu egiten da. Desfilatzean saltsa jarri behar zaio kontuari; jendea pixka bat probokatu behar da; zirikatu.

Zein da zure amestetako mozorroa?

Askore-

kin amesten ditut. Ideia guztiak ez zaizkit buruan kabitzen, luzaroan jarraitzeko adina ditut.



Emandako arropa saltzen dute eta horrekin negozioa egiten dute.

“Normala da ez kontratatzea, bi urteko baimenak hartzen dituzte”. “Kultura ordaintzeko izan beharko luke, orain ez gaude honelakoetarako”. “Janaria erosteko txartelak ematen dizkiete eta ez pentsa produktu zuriak hartzen dituztenik, markakoak erosten dituzte”.

“Bularrak erakusten badituzte nola ez dituzte ukituko?”.

“Luma gehiegi edukitzeak kaltetu egiten die”.

“Ez bazuten letra txikia irakurri, orain ez daitezela kexatu”, “Alper hauekin nola eraikiko dugu herrialde bat?”.

“Burua estaltzen dute gu baino menderatuagoak daudelako”, “ez naute kaleratuko langilea eta ezinbestekoa naizelako”, “beste herrialde batera joango banintz gehiago integratuko nintzateke”...

Zer hitzeman digu bahitzaileak bere alde jokatzeko? Agian, beraiegandik zapalduengandik baino hurbilago gaudela sinestarazi?

**asesores****elkarlan**www.elkarlan.eu

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Kontabilitatekoa eta Juridikoa

Foru Kalea, 2 · **AMURRIO** · Tel. 945 39 33 51 / Lamuza, 12 · **LAUDIO** · Tel. 94 672 74 28

